

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

2020-12-24 OSTEGUNA / 756. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS [TOKIKOM](#)



AGUR 2020

2021

ELKARREKIN



Enrike Zelaia, Zelaia tabernan.

Nortasuna

Duela 25 urte Zazpiak bat disko bildumaren azkenengo alea kaleratu zuen Enrike Zelaiak. Euskal Herriko herrialde bakoitzari disko bat eskaini zion, "herria egitearen" helburuarekin. Bere bizitza euskal musikaren, kulturaren eta folkloreaken ikasketari eskaini dio

Erkuden Ruiz barroso ALTSASU

Enrique Fernandez de Garayalde y Lazcano Zelaya, Enrike Zelaia bezala ezaguna, 1939. urteko uztailearen 13an jaio zen, Altsasun. Espainiako Gerra Zibila bukatu zen urtean. Pertsona oso berezi batek bataiatu zuen: On Marino Aiera apaiza; Altsasun gerra garaian garrantzia handia izan zuen pertsona. Egin zituen azkenengo bataioak izanen ziren, ondoren, Argentinara erbesteratu zelako. Enrike Zelaia sei urterekin hasi zen musika ikasten, eta akordeoia-aren munduko erreferentea bihurtu zen haren birtuosismo eta estilo indartsuarekin.

Pena bat du bere bizitzan: "belarrimotza" dela; euskara ezin izan duela ikasi. Baina bere bizitza euskal musikaren, eta haren bidez, kulturaren eta folkloreaken ikerketan eskaini du. "Gure jatorria ezagutzea beharrezkoa da, inposatutakoari aurre egiteko". Hortaz, Altsasuko festa eta ohitura ia gehienak ospatzen badira, neurri handi batean, Zelaiaren lanari esker da.

Aurten *Zazpiak* bat disko bildumak 25 urte bete ditu. 1970. hamarkadako bukaeran kaleratu zuen lehenengo diskoa, eta ia hogeitaz aritu zen Euskal Herriko herrialde bakoitzeko musika jasotzen, ikertzen eta grabatzen.

Akordeoilaria

Sei urterekin jaso zituen Enrike Zelaiak lehenengo solfeo eta instrumentu ikasketak. Garai horretan bere amari bururatu zitzaion udaleko musika akademian izena ematea. Akademian herriko musika bandarako musikariak trebatzen zituzten. Sei urtetatik hamar urteetara joan zen Zelaia akademiara. Klarinetea ikasten hasi zen. "Fase horretan solfeoarekin hasi nintzen eta instrumentu banaketan klarinetea tokatu zitzaidan. Klarinetea zaharra zen, bandan erabiltzen zuten, eta nahiko hondatuta zegoen. Bi pertsonak berarekin ikasten genuen. Jotzen genuen eta ez zuen ezerk funtzionatzen".

Klarinete horrekin ezin zuen asko ikasi, eta hamar urte zituela bere aitak akordeoi bat erosi zuen eta Altsasuko Miguel Aguirre Beti Jairekin akordeoia ikasten hasi zen. Herri eta folklore musika ikasten zuen.

15 urterekin Zumarragako bandako zuzendariarekin klaseak ematen hasi zen, bere amak bidalita. "Horrekin berbenetako musika jotzen hasi nintzen, herrietan". Altsasu festetako musika taldeen "epizentroa" zela esan du musikariak. "Orkestra asko zeuden, eta herri askotako jendea etortzen zen musikariak bilatzera". Talde batean parte hartzen zuen Zelaiak. "Funtzionatzen" zuela ikusita, beste fase batera salto egin zuen: musika kultua. Zumarragan hasi zen, eta ondoren Bartzelonako Mozart institutura joan zen. "Bertan solfeo ikasketak hobetu nituen, harmonia eman nuen, konposizioa... eta klasikoak jotzen ikasi nuen". Teknikoki maila handiko partiturak interpretatzen ikasi zuen altsasuarrak: *Rapsodia Hungara n°2*, *Lisztinen Campanella* eta abar.

23 urtera arte musika kultoa jotzen aritu zen. Espainia, Europa eta Mundu mailako lehiaketetan parte hartu zuen. "Praktikoki mundu horretan sartzeak suposatzen zuen, eta etorkizunaren atea irekitzen zitzaizkizula esaten zuten". Lehiaketetan parte hartzeko propaganda zela azaldu du musikariak. 1958. urtean Espainiako akordeoi saria

SEI URTEREKIN JASO ZITUEN LEHENENGO SOLFEO ETA INSTRUMENTU IKASKETAK

ESPAINIA, EUROPA ETA MUNDU MAILAKO LEHIAKETETAN PARTE HARTU ZUEN



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

URTE BERRI ON!

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



irabazi zuen, Munduko bostgarren izan zen eta Nazioarteko Paviako lehiaketan bigarren sailkatua izan zen ere. "Sari horiekin nahiko ospea lortu nuen, eta eszenatokietan fase berri batean sartu nintzen: musika kultuko kontzertuak ematen hasi nintzen".

Musika kultua

Zelaia bakarlarri bezala musika klasikoko edo kultuko kontzertuak ematen hasi zen. "Ordu bateko kontzertuak ematen nituen. Sariekin ospe nahikoa lortu nuenez omenaldiak egiten zizkidaten eta horrek bultzada eman zidan etorkizuneko plan berri bat egiteko". Beste maila bateko musika eskaintzen zuen. "Jendeari gustatzen zitzaion, gehien bat Gipuzkoan". Hiriburuetan ere jotzen zuela gogoan du musikariak. Baina ez ziren horretaz bizitzeko nahiko emanaldiak, eta musika estilo horrekin beste espazio batzuetara zabaltzen saiatu zen. Saridunaren "ospearekin" Bartzelonara eta Madrilera joan zen, "bertan ere ezaguna nintzelako". Hala ere, lehiaketa horietan agintzen zuten ospea ez zen praktikara eramaten: "Ez zizuten esaten nora edo nondik joan. Bideratuago egon beharko zen, baina jendeak gustuko bazaitu, arrakasta lortzeko aukera izanen duzu".

"Mundua konkistatuko nuela esan zidaten, eta pixkanaka ideia hori desegiten joan zen". Madrilen zirkuan, irratieta, kabaretetan eta abarretan jo behar izan zuela aitortu du Zelaia. "Hemen baino askoz okerrago egon nintzen". Izan ere, Euskal Herrian kontzertuak eskaintzen zituen, baina Madrilen "horrelako lekuetan" jotzeko baino ez zioten deitzen. "Ni ez nintzen horretarako joan". Gainera, garai horretan soldaduska egitera Afrikara bidali zuten, eta urte eta erdi bertan egon zen. "Hor moztu zen fase hori".

Gezur bat izan zen. "Erabaki nuen horrela ezin nuela jarraitu. Musika klasikoarekin arrakasta lortzeko helburua ez zen posible izan, eta soldaduskaren ondoren, bukatu zen". Hainbeste urte, ezin ziren hutsean gelditu, eta 1963. urtean akademia bat sortu zuen Altsasan. "Nahiko arrakastatsua izan zen, ia ehun ikasle nituen". Baina irakaskuntza ez zitzaion horrenbeste gustatzen musikariari. "Kontraesan bat iruditzen zitzaidan ere. Ni etsituta eta engainatuta sentitzen banintzen, nola jarraitu nezakeen berdina



'Zazpiak bat' disko bilduma. ENRIKE ZELAIA

egiten?". Beraz, 1971. urtean akademia ixtea erabaki zuen. "Eta nola amaitu nuen? Espainiako Akordeoilari Elkartearen eskakizuna jarraituz Espainiako Akordeoi Saria antolatua nuen Altsasan". Lehenengo aldiz txapelketa Madriletik edo Bartzelonatik kanpo ospatu zen, eta Altsasan izan zen.

Lehenengo diskoa

Akademian zegoen bitartean lehenengo diskoa grabatzeko eskaini zioten. Hispavox diskoe-txearekin egin zuen eta euskal folkloreaken lau kanta grabatu zituen. "Jai, bizi eta hil zen inolako arrakastarik gabe". Zerbitetarako balio izan zuen: "Disko horrengatik beste diskoetxe batetik deitu ninduten, Bartzelonako Belter-retik". *Festival Vasco* deitutako diskoa grabatu zuen; biniloa, hamabost kantekin. "Arrakasta izugarria izan zuen. Izugarria". Garai hartan 40 principales irratiak existituko balitz lehenengo tokian astez egongo zela esan du. Bitartean, akademiarekin eta Altsasan zeukan tabernarekin jarraitzen zuen. "Pentsatzen nuenean utzi behar nuela frustragarri zelako, inoiz baino ospetsuagoa nintzen. Eta ez zen Espainiako akordeoilari

txapelduna izateagatik. Enrike Zelaia bezala zen".

"Aurreko fasean okertuta egon nintzela pentsatu nuen, bai irakaskuntzan bai musika, musika klasikoa jotzearen erabaki hori ez zelako egokiena". Baina, zergatik izan zuen horren arrakasta handia *Festival Vasco*? "Lengoaia musikalaren kontua zela konturatu nintzen, euskal folkloreaken lengoaia musikala, hain zuzen". Musika teknika altua zeukanez, hasieran maila jaitea zela iruditzen zitzaion. "Baina erabaki nuen lerro horretako errepertorio propioak egitea. Partiturak existitzen ez zirenez, konposatzea erabaki nuen". Konposatu behar zituenez, Euskal Herriko leku askotako partiturak sortzea erabaki zuen. Folklore musikan egiten zena-rekin alderatuta "maila oso altuko" musika egiten zuen.

Garai horretan dantza taldeekin emanaldiak egiten hasi zen. *Festival Vascoren* errepertorioa baino ez zuen, eta hori jotzen zuen. Estilo propioa sortu zuen, "furia" deitzen zuten. Arrakastatsua izan zen. Mila kontzertu inguru eman zituela esan zuen. "Nork pentsatuko zuen posible litzatekeela?". Uda batean egun bakar batean hiru emanaldi zituela gogoratu

du: 13:30ean Iruñean, 18:30ean Gernikan eta 2:30ean Agurainen. "Iturri bat zen, inork ez zuen fenomeno hori azaldu".

Herri bat, zazpi disko

Hortik *Zazpiak bat* sortu zen. Lengoaia propio horretatik jendearenagana iristeko beharretik. "Kontzertu pedagogikoak egiten

"MUNDUA KONKISTATUKO NUELA ESAN ZIDATEN, BAINA IDEA HORI DESEGITEN JOAN ZEN"

"FESTIVAL VASCO' DISKOAREN ARRAKASTA IZUGARRIA IZAN ZEN, SINESGAITZA"

"FOLKLOAREAREN LENGOAIA MUSIKALAREN GAUZA ZELA KONTURATU NINTZEN"

nituen, eta sinopsi edo aurkezpen bat egiten nuen aurretik. Hori zen osagaia". Hortaz, Bizkaita joaten bazen Bizkaita musika eskaini nahi zuen, eta Nafarroan jotzen bazuen, nafar musika eskaini nahi zuen. "*Festival Vascoren* barruan fandango, arin arin eta biribilketak, orokorrean, eskaintzen nituen". Betiere, ez zegoenez ezer idatzita, Zelaia akordeoirako partiturak sortzen zituen. "Hortik sortu zen lengoaia berezi hori erabiliz herrialde bakoitzari eskaintako diskoak sortzeko aukera: *Zazpiak bat*".

Hasiera batean bere diskoe-txeari disko bilduma egiteko proposamena luzatu zion. Baina *Festival Vasco* arrakastatsuen ondoren, beste disko bat grabatu zuen "eta ez zuen hainbeste arrakasta izan". Dagoeneko ez zen zerbait berria, "boom-a" ez zen hain handia izan, "eta hor gelditu zen". Orduan, Euskal Herriko herrialde bakoitzeko disko bat grabatzea proposatu zuen, eta ezetz esan zioten. "Diskoetxetik joatea erabaki nuen, baina ezin nuen lau urteko kontratua sinatuta nuelako. Ez zidaten beste etxe batekin grabatzen uzten". Itxoin behar izan zuen. "*Zazpiak bat* kontzertuak egiten hasi nintzen 1971. urtean. Baina lehenengo diskoa 1977. urtean kaleratu nuen". Betelerrekin ez zuela ezer gehiago grabatuko erabaki zuen. Denbora pasatu zenean "baja" eman zuen eta Hispavoxekoei galdetu zien: "Ezetz esan zidaten". Diskoetxe bat bilatu behar izan zuen. Azkenean, Ots sortu berri zen Donostiako estudioan grabatu ahal izan zuen. "Ideia gustatu zitzaion eta proiektua haiekin egin nuen":

Folklorista

"Eta nire bizitzarekin jarraitu nuen. Oso zoriontsu nintzen. Zer egin dudana! Hunkigarria zen". Akordeoia jotzea baino zerbait gehiago zen, jendea euskal kulturaren sentsibilizatze modu bat zen. "*Zazpiak bat* 18 urtez luzatu zen". Izan ere, Zelaia bakarrik aritu zen: "Ez nuen elkarte bat atzetik ikerketa sailak ikerketak egiten zituela, sormen taldeak konposaketak egiten zituela... nik dena egiten nuen". Irauten zuena irauten zuela aurrera eramanez zuela argi zuen. Gainera, musikariak azaldu duenez, Paco de Luciak garai horretan Andaluziako folkloreakin antzeko proiektu bat garatu zuen. Zelaia

bi printzipioetan bildu du bere lana: "Nafarroako euskal izaera, eta Euskal Herriko batura". *Zazpiak bat* eta, orokorrean, bere musikaren helburua "euskal kulturaren eta nortasunaren kontzientziarazioa" zen.

Kontzertuak Euskal Herriatik ematen hasi zenean "herria sentitzen nuen; euskalduna sentitzen nintzen". Hala ere, 24 urterekin "nik ez nekien euskalduna nintzela. Ez nintzelako euskalduna": Etxean eta herria, baita hezkuntza ere, ez ziotela nortasun hori pasatu. "Nire gurasoak euskaraz bizi izan ziren, eta ez zuten euskalduna izatea nahi. Pena hori dut". Ahate itsusia bezala sentitzen zela aipatu du, "zer ari nintzen ni euskaldunekin euskalduna ez banaiz. Zergatik sentitzen nintzen horrela? Zergatik sentitzen nuen euskal musika intentsitate handi horrekin? Ez nuen ulertzen zergatik nafarra izanda ez nintzen euskalduna sentitzen". Liburuetara jo zuen, garai horretan ezkutuan irakurri behar ziren liburuetara. Euskaldunen jatorriari buruz ikertzen hasi zen. "Horrela konturatu nintzen zertaz zihoan gauza. Orduan sentitu nintzen zisne ederrena".

Euskal jatorriari, nortasunari, kulturari, musikari eta folkloerari buruz asko ikertu du Zelaiak, baina "trauma" bat gelditzen zaio oraindik: "Belarrimotza izateagatik". Azaltzen duenez, garai horretan erabaki bat hartu behar izan zuen: "Gauza asko nituen buruan, dena batera etortzen zen, eta buruak ez zuen guztirako ematen. Euskara ikasi, musika ikerketak egitea, musika sortzea... erabakiak hartu behar nituen". Alde batetik, musika zegoen; bestetik, hizkuntza. "Banekien hizkuntza oso garrantzitsua zela, eta saiatu nintzen, baina buruak ez zuen ematen". Euskara ikasteko musika utzi behar zuen. Orduan, pentsatu zuen hizkuntzarekin beste batzuek gauza handiak egin zezaketela, eta egiten ari zirela, baina musikarekin Zelaiak egiten zuena, edonork ez zuela egiten. "Lanean jarraitu nuen efektu gehien sor nezakeenarekin: musika".

'ZAZPIAK BAT' BILDUMAREN LEHENENGO DISKOA 1977AN KALERATU ZUEN



Enrike Zelaia akordeoilari ospetsua da. ARTXIBOA

Aitortu duenez, kontzertu pedagogikoak egiten zituenez, euskarazko aurkezpenak buruz ikasten zituen. "Arazoa zen kontzertuaren ondoren jendea niregana etortzen zenean eta euskaraz ez nekiela esaten nienean. Ahoskera oso polita nuela esaten zidaten". Beraz, jendea agurtzeari utzi zion, "arazo handi bat izan zen".

1995. urtean publikatu zuen *Zazpiak bat* disko bildumaren azken diskoa. Duela 25 urte. "Nik uste bai musikalki bai sentsibilitate eta mentalitate aldetik honek guztiak eragina izan duela". Gaur egun, diskoetako abestiak sustatzen jarraitzen du musikariak, sare sozialen bidez. "Abesti bakoitzarekin bideoak egiten ditut, irudiak jarritz, eta bisita asko izaten ditu". Seigarren diskoarekin hasi da orain.

Jatorria

"Eta hori da Altsasun egin nuen ere. Zer egin dezaket Altsasun belarrimotz izateagatik dudana trauma horri aurre egiteko? Nola lor dezaket jendeak herri hau maitatzea?". Musikarekin gerta-

tzen den bezala, elkartzeko elementu bat folklorea dela aipatu du: "Gauzen zergatietara joatea. Nondik gatozen". Euskalduna zela erakusteko, nondik zetorren erakutsi behar zuen.

Nola ez, musika ikerketarekin hasi zen: "Zortzikoa nondik zetorren jakin nahi nuen eta jendea-ri galdetzen hasi nintzen". Altsasur bilduma bat aurkitu zuen, "alfonbraren azpian". Baina ez hain gordeta. "Urratzen hasten nintzenean inauteriak ateratzen ziren, eta Santa Ageda, farejoleak...". Dena hor zegoen. "Eta zer zeukan ezarri nahi diguten nortasunetik? Ezer. Desberdinak dira, oso. Kultura hori inposatu digute, eta orain musukoa jarri diguten bezala, beste muturreko bat jarri ziguten tradizio horiei buruz ez hitz egiteko".

MUSIKAREN IKERKETATIK ABIATUTA, HERRIKO TRADIZIOAK BERRESKURATU ZITUEN

Altsasuarrei galdetuz egutegi oso bat osatu zuen Zelaiak. "Ohi-turak egun batetik bestera gal daitezke. Altsasuko tradizio asko desagertzeaz zeuden. Inauteriak galduak zeuden eta berreskuratu genituen; Santa Ageda, esaterako, nik egin nuenean maila baxuko jendeak egiten zutela esaten hasi ziren, eta ez zuten egin nahi... mentalitate itxia izan behar duzu hori esateko". Garai horretan Extremaduratik etorritako immigrazio asko egon zen, "nola egingen dugu haiek honen parte izateko?". Hemengo tradizioen berri ematea garrantzitsua dela esan du musikariak. "Nolakoak garen ezagutzarazteko, eta, aldi berea, hemengo tradizioetan eta baloreetan parte hartzera gonbidatzeko. Garenaz harro egon behar gara". Eta harrotasun etortzen direnean kutsatu behar zaie. "Gu bezala sentitu daitezte. Bere kultura maitatzen jarraituko dute, noski. Baina gurea ezagutuko dute ere".

Altsasuko nortasun eta elkar-gune adierazle nagusia inauteriak dira. "Hori egiten ari gara. Nondik gatozen jakinda, erabaki behar dugu nora joan nahi dugun. Baloratu behar da, eta erabakiak hartu behar dira, nondik gatozen ahaztu gabe". Hortaz, denborarekin "gauzak aldetzen" direla eta egoerara moldatu behar dela esan du Zelaiak.

Lotsa

1940. hamarkadako Altsasu eta gaur egungo alderatuz, nortasun aldetik, asko hobetu dela esan du Zelaiak. "Lehen euskal nortasuna %3,2 zela esan daiteke". Jendeari euskalduna zela esatea lotsa ematen ziola azaldu du. "Baina lotsa hori aurretik ere bazegoen, 50 urte aurretik sortu zela jakin nuen nik". Hortaz, Zelaiak egingadako ikerketa baten arabera, 1910. urtean Altsasuko familia askotan gertatzen zen bi seme-alaba helduenek euskaraz jakitea eta beste laurak ez. "Zer gertatu zen? Ez zekiten azaltzen". Inposizio bat egon zela gaineratu du. "Euskararen irakaskuntza debekatu zuten, baita bere erabilera zigortu ere". Kanpotik etorritakoen aurrean ere, "euskaldunak izateagatik lotsatzen" zirela azaldu du folkloristak. "Gaur egun oraindik pairatzen ari gara. Alderdi desberdinetan. Azkena Altsasuko gazteen auzia izan da. Ez dute gu izatea nahi. Bakoitzak jakin dezala zer egin behar duen, baina nik nire izaera izan nahi dut".

Neguko solstizioa

Enrike Zelaiak Altsasuko jai egutegiaren eta tradizioen aldeko lan handia egin du. Besteak beste, Neguko solstizioaren ospakizunaren sustatzailea izan da. "Arrazoi eta helburu berdinarekin, gure nortasuna adieraztea". Dantzalekuren ondoan egiten dute, "eta kili-kolo dabil". Zelaiaren iritziaz, "jendeak ez du nik bezain beste sentitzen ospakizuna hau. Baina oso polita da".

Altsasuko folkloeraren elementu etnografikoekin osatutako ikuskizuna da Neguko solstizioa, "gure elementuak, nik jasotako. Altsasuko propioak. Ez dut uste beste herrietan bakoitzak bere elementuekin sortutako ikuskizun bat izanen dutenik". Jentilak, momotxorroak, Mari anderea, Santa Ageda, Olentzero... "Guztien fusioa egiten zen". Antolatzeko lan asko egin izan dute, "baina jendea nekaten da". Proiektua berriz hartu beharko zela uste du, "mimatu eta zaindu behar da".

Gabonetan Altsasun egiten zuten beste ohitura bat kantuz kantu joatea zen. "Baina gabon kanta gehienak elizarekin bat egiten dute, eta dirua lortzeko egiten da. Hori beste kontu bat da". Bestetik, urteberri egunean auzoa egiten zen, eta egiten da. "Ez da beste parranda bat". Garai batean diru laguntzak ez zedenez, herriko gauzak konpontzeko auzolanak egiten ziren, eta urte berri egunean udalak askaria ematen zuten. Auzoaz ezkil jotze berezi bat egiten zen. "Mantentzen jarraitu behar dugu. Herri osoa elkartzeko modu bat da".

Urtarrilaren 5ean farejoleak ateratzen ziren. "Baina ez da elizak esaten duen bezala Errege Magoak deitzeko. Engainatzen gaituzte". Konjuruak ziren. Urte hasieran lurra prestatzen joan behar ziren, izan ere, lurra garai horretan bizitza zen. Horretaz bizi ziren. "Dendariak eta mandazainak zeuden, baina orokorrean lurrak bizi ziren". Tradizio horien bidez uste zuten larreak purifikatzen zituztela.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Ur goiena, ur barrena

Ura mendian behera, ura iturri eta erreketan. Ur hotz gardena, goitik behera edertasun hezean. Theskor zirrikitueta, zaratatsu tanten erritmo azkarrean. Bazter eta txokoetan, horma, harri eta hostoen irrیشان. Geldiezin bere bidean, lurpean eta airean. Joan etorriko itzulian, itsasorainoko ibilbide nekazinean. Hodei eta lainoen ihintzetan, zeru eta lurren artean. Ur lasaietan, ispilu zaharrean. Narzisoren islada maitekorrean, jainkoek lore bilakatu zuten haren edertasun propioaren gehiegizko miresmenean. Urteko gure islada aurkezten digu gardentasun iraingarrian. Ur sakonen behatze beldurgarrian. Ur ilunen bat bateko harrotze susmagarrian.

Urtearen amaierak dakar gure amets eta nahien azterketa zorrotzenaren froga zekena. Urte latz, gordin eta garratzena. Asmo eta intenzio ugariren konpon ezineko akatsena. Ur goiena, badoa irrیشان lurpera, erreka eta ibaietan, inork ere ez du sentituko urte zaharraren faltagatik pena. Komunikabide eta sare guztien gezur sinetsien azkena, zorigaiztoko zigor ankerrenegatik sortutako etsipena. Badoa urte zikin eta krudela. Ur barrena, badator urte berrietan azkena, Urdiaingo kale eta zokoetako kantaita zaharren oihartzunak dakarrena. Amets eta helmuga berrien igarle zarena. Plaza berri eta

INORK ERE EZ DU SENTITUKO URTE ZAHARRAREN FALTAGATIK PENA

gardena, han dantzatzeko prest dauden horrenbeste ausarten itxaropena. Berriak ordeztu dezala iragana dena, hark ekarri behar baitigu egarri garen askapena.



HARA ZER DIEN

Zergatik neska* gazteak?

ERREFAILAK

Aurrekoan gure burua aurkeztu genuen moduan, Errafailak gara, Sakanako neska* gazte feministak. Baina, zergatik "neska*" bakarrik? Bada, sistema kapitalista heteropatriarkalaren baitan, hamaika zapalkuntzek zeharkatzen gaituzte emakume gazte moduan. Horregatik, bere burua emakumetzat identifikatzen eta sentitzen den oro hartzen dugu subjektu politikotzat. Sistemak gure gorputzak gudu zelai bilakatzen ditu indarkeria matxistaren biktima bihurtuz, zaintza lanen sostengu

bihurtuz, edertasun kanonen preso eginez, prekarizaziora bultzatuz... Frantzia eta Espainiar estatuen inposaketa eta zapalkuntzen aurrean, Sakanako neska* gazteok gure euskal izaera aldarrikatzen dugu, Euskal Herri Feminista eta Sozialista eraikitzea helburu. Horretarako, gure esparru propioak sortzea, sareak ehuntzen joatea, elkarrekin konspiratzea, autodefentsa feministaz borborka dagoen salda egunero eragitea, moldatzea, elikagai berriak gehitzea eta Euskal Herriko Mugimendu Feminista elikatzen joatea ezinbestekoa ikusten dugu.

Ez ditugu sistema kapitalista heteropatriarkalaren genero arauak eta ezarritako sexualitateak onartuko, ez dugu horregatik sufrituko. Ez gara normatibizatuko, asimilazio mota guztien aurrean antolatu eta borrokatuko dugu. Ez gara ezkutatuko beldurrik ez dugulako. Ez gara salbuespena, disidentzia gara, eta zuen fobien aurrean autodefentsa transmaribolloa izango da gure arma!

Jarrai dezagun baina, neska* gazteon bidea egiten zein beste bide batzuk arakatzeko. Bidean egingo gara, bideak egingo gaitu!

Errafailak gara, eta Sakanan zehar gaude! Sorgiñik badago, etzago! Tarran- patta-pattan!



OBJEKTIBOTIK



EGUNEAN BEHIN

Sakana optikako eguzkitako betaurrekoen irabazlea

Supro

Sakanaoptika

Sakana 437 partaide		
DENBORALDIKO SAILKAPENA		
1.	Supro	2.449,80
2.	Kajutei	2.426,53
3.	Aratz	2.408,52
4.	Sarraste	2.391,26
5.	IkerEO	2.369,66
6.	rOmn	2.360,95
7.	Koko Garaile	2.358,40
8.	Itzalo1	2.331,92
9.	Bargogain	2.327,91
10.	Aintzane	2.326,39
11.	Iñaki ML	2.322,19
12.	Mendi	2.321,31

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Pandemia eta kinto ospakizunak

Osasun arrazoiengatik, Festa Batzordeak erabaki zuen ilbeltzaren 6ko kintoen buruzagien zozketa udaletxean egin beharrean Burunda frontoian egitea. Kintoek ez joatea erabaki dute; festarako "baldintza egokiak dauden arte itxaron" nahi dute

ALTSASU

Adin nagusitasunera iristen diren gazteek, kintoek, beraien ospakizuna pandemiagatik itxurdatuta ikusi dute hasieratik bertatik. COVID-19 gaitzak osasun krisiarekin batera ziurgabetasun egoera sortu du eta 2021eko kintoek horren arabera antolatuta ahaliko dute beraien ospakizuna. Santa Ageda eguna, otsailaren 5a (ostirala) iristeko 43 egun falta dira.

Altsasuko festa egutegian jai handia da Santa Ageda, bere baitan hainbat berezitasun gordeak dituenak (jantziak, dantzak, opilak...). Jai hori gai zerrendan zuela, Altsasuko Udalaren Festa Batzorderen bilera izan zen joan den ostegunean eta Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, "kintoen buruzagien aukeraketa udaletxetik Burunda frontoira lekualdatuko da". 2003an jaiotako buruzagien zozketa, ohi denez, ilbeltzaren 6ko eguerdian egitea aurreikusitua zuten. Alkateak gaztigatu duenez, "beharrezko segurtasun neurriak bermatuko dira".

Kinto ospakizunak gazteek antolatzen dituzte Altsasun urtero. Hori jakinda, Altsasuko Udalaren asmoa zen kintoen buruzagien hautaketa egitea lehenik. Behin gazteen ordezkari-za izendatuta, udalaren asmoa zen haiekin batera elkarlanean aritzea ospakizuna behar bezala antolatzeko, COVID-19 gaitzak eragindako osasun krisi betean beharrezko erabakiak elkarrekin hartzeko. Gazteen ordezkari-za aukeratzearen garrantzia "egungo egoera konplexuaren" testuinguruan kokatu du udalak.

Kintoen komunikatua

Altsasuko kintoek ohar bat zabaldu dute buruzagien zozketa egiteko Festa Batzordeak hartutako erabakiaren inguruan. Heldu den urtean kinto izanen diren gazteek zabaldu duten oharrean



Ikusteko dago kintoak noiz aterako diren plazara dantzatzera. ARTXIBOA

UDALAREN ETA KINTOEN ARTEAN EZADOSTASUNAK ZOZKETAREN INGURUAN

jakinarazi dutenez, festa ospatzeko "baldintza egokiak dauden arte itxaron" nahi dute, "orduan festa normaltasunez ospatzeko". Otsailaren egoera zein izanen den ez dakitenez, kintoek erabaki dute buruzagien aukeraketara ez joatea: "ez baitago bermerik, ez eta zozketa egiteko beharrik".

2003an jaiotako gazteek oharra publiko egin dute udalak hartutako "erabaki harrigarri zein zentzugabearen aurrean". Kintoen iritziz "erabat zentzugabea da bizi dugun egoera honetan kintoen gaia mahai gainean jartzea aurretik inori ezer komunikatu gabe. Kintoei ez zaigu ezer esan erabaki honi buruz, eta publiko egitean, herri osoarekin batera jabetu gara erabakiaz. 'Gure festa' denez, zuen esanetan, ez al da zilegi kintoekin, edo guk hautatutako ordezkariarekin bileraren bat egitea, urtero egiten

den 'prozesu ofiziala' hasi baino lehen?"

Kintoek esan dutenez, "ez gauden festa egoeran, ezin baitira kintoak urtero bezala ospatu; horregatik, lehen aipatu bezala, zentzuzkoagoa iruditzen zaigu erabakitze prozesua lehenago hasi izan balitz, eta ez arrapaldan, gainera kintoko presa bazenute bezala". Eta "egoera honetan" buruzagiak aukeratzea "ausaz erabakitzea zentzuzkoa" ote den galdetu dute.

Altsasuko Udalak kintoekin premiazko bilera egitearen inguruan kezka azaldu dute gazteek: "badirudi horrela erabakien erantzukizuna gainera kendu nahi duzuela. Ez ote da hau segada bat kintoek aurtengo festari uko egiteko?" Heldu den urteko kintoek argi azaldu dutenez, "egungo egoeran ezinezkoa da ospakizunak egitea, eta ezin bada baldintza egokiak eman, zentzurik al du planteatze hutsak?". Festa egin ahal izateko diru bilketa ezinen dela halako baldintzetan egin gaztigatu dute kintoek. Aldi berean, argi utzi nahi izan dute haien "asmoa ez dela ospakizunari uko egitea, baldintza egokietan egitea baizik".



Begoña Salazar Romo saria jasotzeko unean. GETXOKO UDALA

Salazar argazki zaharren albumengatik saritua

Getxoko Udalaren Ondarearen Aixe Getxo! Saria jaso zuen joan den ostegunean

ALTSASU

Begoña Salazar Romoren argazki-liburuak ezagunak dira Altsasun eta Olatzagutian. Altsasuarrek garai bateko argazkiekin herriei edo gaiei buruzko bildumak osatzen ditu. Haiek ikusgai izan dira Burundako bi herrietako kultur etxeetan.

Salazarrek Iortia kultur gunean 2009an erakutsi zituen estreinakoz argazki zaharrekin betetako eskuz egindako liburuak. Bost urtez egin zituen erakusketak, jendeak argazkiak ematen baitzizkion. Guztira ehun liburutik gora ondu zituen.

Berak egindako liburu mordo bat Altsasuko liburutegi publikoan daude. Historia hurbila iruditan ikusi edota memoria ariketa egiteko aukera aparta ematen dute Salazarren liburuak.

Eta hala uste du Getxoko Udalak. Horregatik, egile altsasuarri Ondare hautemangarria eta hautemangaitza saria eman zion joan den ostegunean, "herriko eta Portu Zaharreko argazki zaharrak eskuz egindako 200 albumetan" jasotzeagatik. Aixe Getxo! Sariketako 14 mailetako bat da hori. Salazar gaur egun Getxon bizi da.



UTZITAKOIA

Aldasoro harategia 2. Donostian

Olatzagutiko Aldasoro harategiak, aurten ezin zuen 25. Euskal Herriko Txistorra Txapelketan parte hartu, joan den urtean txapelduna izan zelako. Baina COVID-19 gaitzak guztia aldatu du, lehiaketa Basque Culinary Centerren jokatu zen ostiralean. 23 parte hartzaile izan ziren. Orioko Kepa Loidik irabazi zuen, Patxi Aldasoro 2. izan zen eta 3. Tuterako F. J. Aguado.

Hiru ur araztegitan eguzki plakak jarriko dituzte

Eguzki energia lortu, urak arazteko eta urtero 116 tona CO² atmosferara askatzea saihesteko dira

SAKANA

Ur arazketaren ardura duen Nilsa enpresa publikoak Nafarroako araztegiak eguzki energiaren hornitzeko plana martxan jarri du. Herrialdeko hainbat araztegiatan panel fotovoltaikoak jarri 116 tona CO² isurtzea saihestu nahi du Nilsak. Horrekin batera, energia berriztagarriak sustatu eta argindar faktura murriztu nahi du Nafarroako Gobernuak. Izan ere, faktura hori ur araztegi mantentzearen eta jardueraren gastu handiena baita. Egitasmoa "klima aldaketaren

kontrako borrokan eta jasangarritasunaren alde" egindako apustuaren barruan kokatu du gobernuak.

Aurten hasi da egitasmoa gauzatzen Tafalla aldeko eta Erriberrako zenbait araztegiatan eguzki plakak jarri. Nafarroako araztegi gehiagotan panel fotovoltaikoak jarriko dituzte, baina ezin da guztietan jarri klimatikatik. Nilsatik jakinarazi digutenez 2021eko abenduan Irurtzango, Etxarri Aranazko eta Urdiain-Altsasuko araztegiatan jarriko dituzte eguzki plakak.



UTZITAKOIA

Lau lan Etxarri Aranatzan

Etxarri Aranazko Udalak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat baliatu du lau lan egiteko (13.000 euro guztira): kanpo santuan eta futbol zelaietan muralak margotu, Euskalerriari frontoiko atea hobetu, ibilgailuen abiadura txikitzeko gailu murriztaileak eskuratu ditu udalak eta parkearen ondoan zortzi autorenndako aparkalekua aurreikusi da.

Ongi etorria baino gehiago diren harrerak

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun eta Euskara zerbitzuek, Arbizuko eta Etxarri Aranazko udalekin batera, aurten erroldatutako pertsonen erakunde harrera egin zieten larunbatean

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Herritar berriak eta tokiko erakunde artean elkar ezagutu eta hurbilpena sustatzeko erakunde harrerak egin ziren larunbatean. Etxarri Aranatzan udalaren izenean Maria Saez de Albeniz Bregañak eta Marta Lopez Urmenetak egin zieten harrera aurten erroldatu eta ekitaldira agertu ziren 12 etxarriarrei. Ongi etorria ematearekin batera, herriko zerbitzuen berri eman zien. Haiekin batera zerbitzuen izenean Begoña Zestau Baraibar, Izaskun Errazkin Beltza eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Ana Balda Doncel izan ziren; labur, beraien egitekoaren berri eman zuten. Zestauk Mank-en Kirol eta Berdintasun zerbitzuen berri ere eman zuten. Errazkinen euskararen berri eman zuten ere.

Herritar berriek beraien bizipenen berri emateko ere hitza hartu zuten larunbatean. Gainera, zubigile lana egin zuten jaioterri bereko arbizuarrak eta etxarriarrak izan zituzten "amaponteko eta aitaponteko" ekitaldian. Etxarri Aranatzan Falou senegaldarra eta Marisa kubatarra izan ziren eta Arbizun Suleiman maliarra.

Arbizuko kasuan Francisco Javier Razkin Flores alkateak



Arbizuko erakunde harreraren parte hartu zutenak. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

eta Aitzaga Zeberio Petriatik egin zieten harrera erroldatu berriei. Haiekin batera teknikariak izan ziren. Arbizun, gainera, udaletxean bertan hainbat zerbitzu daudenez, herriaren etxean barnako bisita gidatua egin zuten hura bertatik bertara ezagutzeko. Hala zerbitzuak hurbiltzea lortu zuten udal ordezkariak. Telefono trukaketak ere egon ziren eta erakunde harreraren parte hartu zutenek "pozik" hartu zuten ekimena.

Erakunde harreraren ondoren, Zestauk jakinarazi duenez, eki-

menak segida izanen du: "asmoa da bi udaletxetan erroldaz arduratzen diren profesionalen horren berri ematea zuzenean. Eta euskarriak ere emanen zaizkie. Jatorriaren arabera euskarri bat edo beste emanen zaie". Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko teknikariak gaineratu duenez, "larunbatekoa hasiera izan da. Asmoa da honekin segitzea, hobetzea, eta beste udalera zabaltzea". Zestauk gaineratu duenez, "urtean bitan egitea proposatuko dut, garagarri eta abendu aldera".

EZ GEHIAGO ITXARON

Eraman nazazu

ESKURAGARRI

HANDIA • ERTAINA • TXIKIA

ESNE GAINA • TXOKOLATEA • KREMA

GLUTEN GABEA ESNE-GAINAREKIN

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

ALTSASU

678 323 403

• Iruña Hiribidea, 48

948 468 026

Zumalakarregi Plaza, 3

670 389 017

• San Juan Kalea, 50

948 562 185

• Otadiko Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL

691 83 41 36

• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ

• Postas, 33

945 148 368

• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ

948 461 660

• Kale Naguasía, 4

OLAZTI

948 468 755

• Orreaga Kalea, 1

ARAI

945 314 572

• Andoni Urrestarazu, 3



LAKUNTZAKO UDALA

Jubilatutako medikuari aitortza

Lakuntzako medikua izan da 36 urtez Migel Ignazio Galartza. Jubilatu egin da eta bere lanari eta dedikazioari aitortza egin nahi izan zion Lakuntzako Udalak, are gehiago pandemiak markatutako urte honetan. Asteartean egindako ekitaldi xumean Patxi Xabier Razkin Sagastibelzak pikotaren errepika bat oparitu zion Galartzari lakuntzarren osasuna zaintzeagatik.



SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

Katiluaren 3Dko plano egin

Eraldaketa digitalerako guneak, Dinabidek, prestakuntza ikastaroak aspaldi hartzen hasi zen. Eskaneatzeari, irudi digitalen tratamenduari eta 3Dko planoei buruzko ikastaroa baliatuta, Irañetako Udalaren zilarrezko taza eskaneatu zen. Udalak 3D plano eta ondare digitala ditu orain. Beste udal batzuk ere beraien katiluak eskaneatzeko interesa dute.

Altsasuko Dendarien Elkartearen zozketa bertan behera

Altsasuko Dendarien Elkartek jakinarazi duenez, ostiralean egitekoa zen zozketa bertan behera utzi du, bazkide bat hil zelako. Jakina denez, elkarteko kide diren establezimenduetan erosketak egiten zituaztenei zozketarako txartelak jaso dituzte. Zozketarik eginen ez denez, txartelak baliorik gabe gelditu dira. Elkartek eskerrak eman

dizkio Altsasuko Udalari zozketa antolatzen laguntzeagatik. Esker oneko hitzak izan dituzte ere "Altsasuko tokiko merkataritzari laguntzen eta gure saltokietatik pasa diren herri-tar guztiendako".

ADEk zozketa bertan behera uzteak eragindako kaltea sentitzen duela adierazi du. Eta jakinarazi duenez, "laster, osasun-krisiaren egoerak aukera ematen badu, jarduera berriak eginen ditugu, bai bezero guztiak sarituz, bai 2021ean stock azoka eginez".



Azaroaren erdialdean ibarreko manifestazioa egin zen Sarek deituta.

Hamabost herritan presoek etxeratzearen alde eginen dute

Ilbeltzaren 9an, 17:30ean, herrietako plazetan 'Bidea gara' leloa duen kontzentrazioak eginen dira

SAKANA

Euskal presoek eta erbesteratuen etxeratzea aldarrikatzeko makina bat bilkura eginen dira Euskal Herrian barna ilbeltzaren 9an. Sarek deitutako bilkurak dira eta "konponbidearen, bizikidetzaren eta bakearen aldeko lanean parte aktiboa izateko" konpromisoa berresteko balioko dute. Bilkura horietan presoek aplikatzen zaien salbuespeneko araubideari akabera ematea eta estatuko kartzeletan gainerako presoek aplikatzen zaizkien lege arruntak aplikatzea eskatuko da batetik. Bereziki, presoak lehen gradutik bigarrenera pasatzera, erregimen arruntera; "presok etxeratze bidearen hasiera baita, espetxe-araudia huts-hutsan aplikatuta".

Herriz herri "espetxe-politikaren ondorioak jasaten ari direnak" gogoratuko dituzte. Sareko kideek azaldu dutenez, "gure seme-alabandako etorkizun hobea, gorrototik, gatazkatik eta mendekutik aldentutako etorkizuna, bizikidetzan eta bakean oinarritutako etorkizuna eraiki nahi dugun guztion artean eginen dugu".

Sareko kideek gogorarazi dutenez, "euskal presoek aplikatzen zaien urrutze-politikaren ondorioz presoek egoera txarra bazen, pandemiak presoek bisitak egiteko murrizketa, muga eta oztopo gehiago ekarri ditu". Eta gogoratu dute presoek ehun bat seme-alabek gurasoetako bat edo biak ikusi gabe urte erdia baino gehiago daramatela. Oraindik ere preso batzuk isolamenduan

edo larriki gaixo daudela ere gaztigatu dute. "Beraz, bide luzea dugu egiteko, eta gu ez gaude prest normala ez dena normalizatzeko. Espetxe-politika euskal preso guztiak Euskal Herrian daudenean normalizatuko da".

15 bilkura

Aldarrikapen horiek bere egiteko eskatu diote euskal gizarteari eta ilbeltzaren 9ko elkarretaratzean parte hartzerat gonbidatu dute, osasun-segurtasunerako neurri guztiak errespetatuta. Sakanan honako herrietan eginen dira kontzentrazioak: Irurtzun, Arakil, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu Ergoiena, Etxarri Arantz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordian. Izan Bidea dinamika-aren baitan "Bidea gara" leloa izanen dute bilkurek.

Bestalde, Sareren jarduna finantzatzeko bazkide egin edo www.sare.eus webgunearen bidez edo ilbeltzaren 9an bertan diru ekarpena egitera animatu dute. Azkenik, ibarreko hainbat herritan euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzeko kalera aterako dira etzi, hilabeteko azken ostiraleko kontzentrazioetan.

Bestalde, Espainiako Espetxe Erakundeak Luis Mariñelarena Gartziandia preso etxarriara A Coruñaeko espetxetik Palentziakora lekualdatuko zuela jakinarazi zuen ostiralean. Gainera, lehen gradutik bigarren graduera pasako dute. Ondorioz espetxe onurak lortzeko aukera luke.



Auto karabana egin zen. GAZTE ASANBLADA

Arbizuarra Auzitegi Nazionalean deklaratzera

Guardia Civil bat hil eta lau zauritu zituen atentatuarekin zerikusia izatea leporatu diote

ARBIZU

Arbizuko Gazte Asanbladak (AGA) jakinarazi duenez, Espainiako Auzitegi Nazionalak deklaratzera deitu du Ruben Gelbentzu Gonzalez. Eta harekin batera preso dauden beste bi euskal herritar ere. AGAk gaineratu duenez, hirurei Guardia Civilaren kontra leherkariz Leitzan 2002an egindako atentatu baten erantzule izatea egotzen diete. Atentatu hartan agente bat hil eta beste lau zauritu ziren. AGAko kideek gaineratu dutenez, erakunde armatuko kide izatea, hilketa terrorista eta lau hilketa terroristaren saiakera eta lehergailuak edukitzea leporatzen dizkiote. "Aipatzekoa da ekintza berarengatik beste hainbat jende auzipetua izan dela aurretik eta inoiz ez dela erantzulerik topatu".

AGAko kideek jakinarazi dute Gelbentzuren etxe parean eta Arbizuko beste hainbat tokitan kamerak dituzten autoak agertu direla, "poliziak bigilantziarako erabiltzen ditu". Azaldu dutenez, "gure elkartasun guztia beharrezkoa izanen da errepresio kasu hori gelditzeko". Herenegun auto karabana egin zuten arbizuarren egoera salatzen. Atzo batzarra eta larunbatean, 13:00etan, elkartasun kontzentrazioa.

Aitaren gorpuzkiak jaso ditu Concha alabak

Concha Dieguez Jakak aita bilatzeko lan nekaezina egin izan du urtetan. Berak sei urte zituenean fusilatu zuten aita. Ostiralean aita zenaren gorpuzkiak zituen kutxa guztiz hunkituta jaso zuen, kutxari heldu zion aita besarkatu nahi izanen balu bezala

ETXARRI ARANATZ

Claudio Dieguez Loza San Asensioko (Errioxa) Renfeko langilea, sugina zen. Francisca Jaka Mendiola etxarriarrarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Concha, Concepcion Dieguez Jaka, berriz, Etxarri Aranatzen. 1936. urtean hiru urte zeraman familia Etxarrin bizitzen. Franciscaren gurasoen (Pellonekoako Monika Mendiola Berastegi eta Pedro Maria Jaka Maiza) etxe ondoan bizi ziren.

Dieguezek CNTrekin lotura zuen. 1936ko irailaren 13an, Miranda de Ebron lanean ari zela, atxilotu eta Altsasura bidali zuten. Leporatu zioten Asturiasko



Concha senideekin joan zen. GOBERNUA

iraultzaren ondorengo hilketen kontrako eta emakumezkoen boto eskubidearen aldeko kartelak jartzea. Familiari jakinarazi ziotenez, Sorozarreta inguruan hil eta bertan lurperatu zuten.

Conchak ostiralean esan zuenez, "ni ez ninduten hil, baina ez didate bizitzen utzi". Aita hil ondoren Etxarri Aranatzen bizi zirela "makurkeria" asko bizi izan zituen familiak, besteak beste, zituzten animaliak pozotzea. Azkenik, herria utzi eta Altsasura joan ziren bizitzera. Conchak pena zuen ostiralean bere hildako anaiak eta ahizpak ez zutelako jakin, azkenean, aita berreskuratu zutela.

Koskobiloko meatzea leheneratzeko plana dago

Cementos Portland Valderrivas enpresak sustatu du. Egitasmoa jendaurrean aztertzekeo epean dago

OLATZAGUTIA

Nafarroako Gobernuak Meatzeen Atalak 2019ko martxoaren 19an Cementos Portland Valderrivasi eskatu zion harrobia zaharberritzeko plana aurkeztu zezala. Harrobian gaur egun pareta bertikalekin batera zelai gune irregularrak daude. Enpresak aurkeztutako proiektuak aurreikusitako pareta bertikal horietan zentratzea, "inguruarekin bat datozen ingurumen eta segurtasun baldintzak bermatzeko".

Harrobiaren iparraldean, mendebaldean eta hego-mendebaldean pareta bertikalak daude, 50 metro luzekoak batzuk. Enpresak zaharberritze proiektuan proposatu du pareta horien kontra materiala botatzea eta horrela paisaia integrazioa lortzea. Kalkulatu du 100.000 metro kubiko beharko direla. Harrobiaren zati horiek materialez

betetzeko bost urte beharko dituztela kalkulatu dute. Bestalde, harrobiaren ustiaketarako eraikitako eraikuntza batzuk oraindik han daude. Haietako bat berezia da (porlanezko arrappa bat) eta, udalak hala eskatuta, mantendu egingen da, "garai bateko meatzaritza jardueraren lekuko gisa mantentzeko". Gai nontzeko egiturak bota egingen dituzte.

Aipatu proiektua jendaurrean dago eta interesdun direnek alegazioak aurkez ditzakete Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez, ahal dela, Industria Antolamenduaren, Energia Azpiegituren eta Meatzeen Zerbitzuari zuzenduta, 30 egun baliodunean. Nafarroako Gobernuak eta Olatzagutiako Udala aztertzen ari dira, besteak beste, han arkeologia aztarnategia dagoelako.

Goñiren memoria bizirik mantentzeko ekitaldia

Burgosko prozesuaren testuinguruan Donostian atxilotu eta torturatu zuten Antonio Goñi Igoa etxarriarra. Gero suizidatu zen. Haren oroimena ez galtzeko ekitaldia antolatuta zuten Burgos 50 ekimenak. "Tortura aitortu eta erreparatu behar da"

ETXARRI ARANATZ

Antonio Goñi Igoak bere buruaz beste egin zuela 50 urte bete ziren astelehenean. Goñi "beste asko bezala, ahaztutako biktima" bat dela esan zuten bere senideek igandean. Gaineratu zuten, "hemen, egunen batean bizikidetzatza lortuko bada, garrantzitsua da biktima hauek aitortzea eta hau bezalako oroimen ekitaldiak egitea bere memoria bizirik mantentzeko".

Burgosko prozesua hasi ondoren Bizkaian eta Gipuzkoan salbuespen egoera ezarri zuten Espainiako Gobernuak. Goñi atxilotu eta 18 egunez erabat desagertuta eduki zuten. Carmen



Antonio zena goiko pantailan.

emaztea polizia etxe guztietatik haren bila ibili zen senarraz galdezka. Ez zioten esan non zegoen. Askatu eta etxera bueltatu zenean desegindako gizona zen. Dene-tarik egin zioten, azkazalik ere ez zitzaion gelditzen eskuetan". 18.000 pezetako (108,18 euro) isuna jarri zioten. Hura pagatzeko lankideen eta lagunen laguntza izan zuen.

1970eko abenduaren 21ean suizidatu zen etxean. Donostiara joandako anaia batek opatu zuen. Anaiak Goñi idatzitako oharra irakurtzeko aukera izan zuen (txakur horiek hilko naute!). Poliziari oharra eta bere objektu pertsonal guztiak eraman zituen.

C.A. OSASUNA

D. ALAVÉS

ABENDUAK 31, OSTEGUNA

16:15-18:15

(IRRATIKO KONEXIOA 16:00EAN)



EUSKALERRIA

IRRATIAREN

BIDEZ

C.A. OSASUNA

REAL MADRID

URTARRILAK 9, LARUNBATA

21:00-23:00

(IRRATIKO KONEXIOA 20:45EAN)

euskalerrairratia

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

URTARRILAREN 11 BITARTEAN
EUSKALERRIA IRRATIA 8:30-11:00 MAGAZINA



Ikazkinaren bisitarik arraroena

Olentzero eta Mari Domingi Sakanara etorriko dira gaur, baina musukoa jantzita

SAKANA

Pertsonen artean metro eta erdiko distantzia mantendu, musukoa jantzita izan, jende pilaketak saihestu... Horiek eta COVID-19 gaitzari aurre egiteko beste hamaika aholku jaso dituzte basoan ere Olentzerok eta Mari Domingik. Eta, pandemiak-pandemia, Sakanara bisitan

etorriko dira. Hori bai, bikoteak nahiago izan du Irurtzunen aurrez aurre ez agertzea, herri erdia konfinatuta baitago, eta haiek joanda jendea kalera atera eta gaitza gehiago zabalduko zenaren beldur zirelako. Hala ere, Olentzero eta Mari Domingi Irurtzunen eta ibarreko herri guztietan, modu batera edo bes-

tera, presente egonen direla esan dute. Aldi berean, bikoteak esker ona azaldu die haien ongi etorri harrerak herrietan antolatzen egon diren guztiei; jakin baitakite borondatezko lana egiteko jendea opatzea gero eta zailagoa dela eta, gainera, pandemiak antolakuntza lanak zaildu dizkielako.



Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Uharteko Arakilen. UTZITAKOIA

Olentzeroren etorrera

Herria	Ordua	Tokia		
Irurtzun	18:00	Iskidi taldeko joalduna, trikitilariak, txistulariak eta akordeoilariak aterako dira kaleak alaitzera. Herriko hainbat puntutan geldialdiak eginen dituzte beraien	musika irurtzundarrek etxetik egoki entzun dezaten. Musikarien ondoren Mari Mur eta Olentzerok, Iskidiren mitologia pertsonaiez lagunduta, irurtzundarrendako	mezua zabalduko dute. Hura ikusteko Irurtzungo Udalararen www.irurtzun.eus webgunean sartu beharko dira irurtzundarrak 19:00etan.
Etxeberri		Olentzero Etxeberria menditik, Joserren etxe ondotik, agertuko zen herenegun. Ikazkina haurrak dauden etxeetara joanen zen zuzenean. Haiek harrera egin zioten,	baina gehiegi gerturatu gabe. Eta gutuna emateko baliatu nahi zutenek Olentzeroren zakuan edo zarea sartu zuten. Hori bai, banaka eta musukoa jantzita eman zizkioten	gutunak. Ez zen kalejirarik izan jende pilaketak saihesteko. Haurrak dauden etxe guztiak bisitatu ondoren, ikazkina heldu den urtera arte agurtuko zituen etxerriarrak.
Etxarren	16:00	Etxarrendarrek Olentzero distantzia gordeta ikusteko	aukera izanen dute, musukoak jantzita.	
Hiriberri Arakil	Iluntzean	Olentzeroren bisita izanen dute hiriberriarrak, ikazkinak ez ditu oparirik gabe utziko, baina osasun egoerak eskatzen dituen neurriak zorrotz betetzea	eskatu du, hau da: bere kalez kaleko ibileran inor atzetik ez joatea eta bera ikusi eta agurtu nahi dutenek beraien etxeetatik egin dezatela. Behin herri	gutua agurtu ondoren, ikazkina bere egitekoetara bueltatuko da.
Irañeta	18:00	Andia aldetik heldu den ikazkina autobus geltoki	inguruan agertuko da. Baina irintarrek ez dute kalejirarik	eginen eta bakoitzak bere etxetik agurtuko du ikazkina.
Arruazu	19:30	Arnazko bidetik etorriko da ikazkina. Eta bera izanen da herrian barna kalejira eginen duena, arbazuarrek	ezin izanen baitute harekin batera batetik bestera ibili. Etxetik eta distantzia gordez ikusi beharko dute	Olentzeroren bisita.
Lakuntza	17:00	Olentzero eta Mari Domingi herrietik barna ibiliko dira, baina lakuntzarrek ez dute haren ondoan kalejirarik eginen aurren. Kalera atera eta haiek	ikustearekin konforme gelditu beharko dute. 18:00etan bikoteak frontoian opariak banatuko ditu. Han pandemiari aurre egiteko segurtasun neurriak	bete beharko dira. Gainera, frontoian sartu nahi dutenek, alde zuzenetik 656 546 345 telefonoan (Naia) izena eman beharko dute.
Arbizu	18:30	Arbizuarrek plazan eginen diete harrera Olentzerori eta Mari Domingi. Han aulkietan eserita eta elkarren arteko distantziak mantentzen, zain izanen dituzte herriko	haurrak, bikotearen eskutik opariak jasotzeko desioetan. Jende pilaketak eragozteko pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantentzea gomendatu dute. Eguraldiak	lagunduko ez balu, harrera frontoian eginen litzateke.
Lizarraga	18:30	Eliz atariaren ondoan jarrita egon den Olentzeroren popin baten ondoko postontzi batean jaso dituzte Lizarragako haurrek ikazkinari idatzitako gutunak. Olentzero eta Mari Domingi menditik etorriko dira	beste lau laguntzailerekin batera. Haiek izanen dira Lizarragan kalez kale ibilik diren bakarrak, aurretik bidalitako mezuan lizarratarrei eskatu baitiete beraien etxean gelditzeko eta bertatik agurtzeko	gabon gaueko segizioa. Beraz, etxeko atetatik, leihotik edota balkoitik agurtzeko aukera izanen dute, distantzia mantenduz eta musukoa jantzita.
Etxarri Aranatz	17:30	Haritzalkoko postontzian jasotako gutunak irakurri eta gero, Olentzerok eta Mari Domingik nahikoa lan izanen dute opariak banatzen gaur Etxarri Aranatz. Haiek osatutako segizioa herrian barna ibiliko da, baina haiekin batera beste inor ez joateko deialdia egin dute antolatzaileek. Olentzero eta Mari Domingi ikusi nahi	dutenek herrian zehaztutako zazpi puntuetako batera joan beharko du, etxetik gertuen duenera ahal dela. Olentzero eta Mari Domingi puntu horietan 15 bat minutuz egonen dira, baina ezin da gehiegi gerturatu, jende pilaketak saihesteko metro eta erdiko distantzia mantendu behar delako. Bikoteak gaurko jarri	dituen hitzorduak honakoak dira: 17:30ean Malkorramendin, 17:50ean Andra Mari ermitan, 18:10ean Bureñako parkean, 18:30ean Maiza plazan, 18:50ean Aritzeta bidean, 19:10ean Dorremonean eta 19:30ean ikastola parean. Toki bakoitzean ezin dira 150 pertsona baino gehiago elkartu.
Bakaiku	18:00	Olentzerok eta Mari Domingik ordu erdia hartuko dute bakaikuarrak bisitatzeko. Aurtuz ez dira kalez kale	ibiliko. Eguraldiak laguntzen badu plazara joanen dira eta, bestela, Iturrarte frontoian eginen dute harrera.	Distantziak mantendu behar direnez, haurrak aulkietan eserita egonen dira bikotearen harrera garaian.
Iturmendi	19:00	Menditik etorri eta Abxumendi kaletik sartuko dira Iturmendik Olentzero eta Mari Domingi. Herrian barna kalejira egin eta frontoian bukatuko da. Ezinen da	segizioaren atzetik joan aurreko urteetan bezala. Olentzero eta Mari Domingi ikusi nahi dituztenek etxetik edo etxeko atetik edo ibilbidean barna puntu jakinetan egin beharko	dute. Hori bai, beti osasun neurriek ezartzen dituzten segurtasun neurriak hartuta. Aurren, akaberan, bikotea agurtu beste aukerarik ez dute izanen iturmendiarrak.
Urdiain	18:00	Olentzerok eta Mari Domingik aurren ere ez dute hutsik eginen Urdiain. Beraiek bakarrik dakiten moduan, etxe guztietara iritsiko dira lehenik, haietan txikiendako gutun eta goxoki poltsa bana utziz. Ohi bezala, herrian	barna kalejira eginen dute. Baina aurren laguntzaile bakarrak txistulariak izanen dira. Haiek gertutik ikusi eta haiei kantatu nahi dutenek segizioak geldialdiak egitea aurreikusitako duen bost puntuetako batera joan beharko du:	Sagardia kalea, Kortela kalea, Iturtulo kalea, Goienkalde eta Portuko kaleko bidegurutzean eta Goienkalde 36 ondoan. Han daudela pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantendu beharko da.
Altsasu	17:00	Olentzerok eta Mari Domingik lortia kultur gunean harrera eginen diete altsasuarrei 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan. Egun horretan oso lanpetuta egonen direnez, 15	minutuko hitzordu bereziak izanen dira eta haurrak protagonistak direlarik. Horregatik, familia unitate bakoitzeko heldu bat besterik ezin da sartu, kultur guneko	aforoa 150 pertsonara mugatuta baitago. Sarrerak kultur gunean edo haren web gunean jaso behar dira. Olentzero eta Mari Domingiren bideoa: https://labur.eus/ZTNf8 .
Olatzagutia	18:00	Lamiaturrek gutunak domekan jaso ondoren, Olentzero eta Mari Domingi ordu bat emanen dute Olatzagutian gaur. Haiek agurtu nahi dituztenak honako tokitan izanen dute aukera: Sancti Espiritu, Inguraketa-	Portua kaleen bidegurutzea. Intsumisioaren plaza, Kale Nagusia eta Urbasa kaleen bidegurutzea, San Sebastian ermita, Arronga plaza eta Kale Nagusia eta Kamiogaina kaleen arteko bidegurutzeetan. Ikazkinaren segizioaren	atzetik ezin izanen du inork joan, eta agur puntuetan pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantendu beharko da. Olentzerori agurra errazteko bilgune bakarrera joateko eskatu diete antolatzaileek olaztiarrei.
Ziordia	18:30	Olentzero eta Mari Domingi ikusi nahi dituzten	ziordiarrek Gaztelura joan beharko dute.	Pandemiagatik ezin izan dute haiengana hurbildu.



Trakatan, trakatan, Sakanara

Olentzeroren etorrera

Herria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Erregeak agurtu nahi dituzten irurtzundarrek elizara joan beharko dute. Hala ere, haiek agurtu eta gabon kantak abestuko dizkiete. Baina maiestateengana ezin izan du inork hurbildu, distantziak mantendu behar baitira. Pandemiagatik elizako afroa murriztuta egonen da.
Uharte Arakil	19:00	Zerradoatik abiatuko da Baltasar, Gaspar eta Meltxorren segizioa gurdi bakarrek osatuta. Handik Itxesiara joko du erregeek bertako auzotarrak agurtzeko. Eta behin hango bisita despeditu ondoren, errege segizioa herrian sartuko da eta harri buelta emanen dio, ekialdeko aztiak uhartear guztiek agurtzeko. Aurten, jende pilaketak saihesteko, ezin izanen da inor errege segizioarekin batera herrian barna kalejiran ibili, eta hiru erregeak ikusi nahi dituztenek etxetik egin beharko dute.
Lakuntza	18:00	Ibai aldetik iritsiko da erregeen segizioa Lakuntzara, aurten gurdi bakarreen. Herri guztiko kaleetatik pasako dira Baltasar, Gaspar eta Meltxor. Ekialdeko aztiak eskatu dute haien gurdia atzetik inor ez joateko eta haiek agurtu nahi dituztenek etxetik edo etxe paretik egiteko, distantzia mantenduz eta jende pilaketak saihestuz.
Lizarraga / Dorrao	18:00	Txikienak faleak hartu eta Lizarragan barna hotsa dariola egonen dira goizean, errege segizioa Lizarragaz ahaztu ez dadin. Ordurako dagoeneko eliza atarian egondako postontzian beraien gutunak botata izanen dituzte. Elizatik abiatuko dira hiru erregeak eta haien laguntzaileek. Haien atzetik ezin izanen du inork joan. Baltasar, Gaspar eta Meltxor ikusi nahi dituztenek etxetik egin beharko dute eta ezin izanen dira erregeengana hurbildu. Behin Lizarragako bisita despedituta, hiru erregeek Dorrao bisitatuko dute. Bi herri horietan ere jendea ezin izanen da erregeengana hurbildu eta jende pilaketak saihesteko pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantendu beharko da.
Etxarri Aranatz	19:00	Erregei gutuna idazten dietenek elizaren ondoan jarriko den postontzian utzi dezakete. Errege segizioa, berriz, ilbeltzaren 5ean etorriko da. Etxarriarrek ezinen dute herrian barna kalejiran hiru erregeekin batera egin. Haiek ikusi nahi dituztenek herrian zehaztutako zazpi puntuetako batera joan beharko du, etxetik gertuen duenera ahal dela. Baltasar, Gaspar eta Meltxor geldialdi horietan ikusteko aukera izanen da, baina ezinen da gehiegi gerturatu, jende pilaketak saihesteko metro eta erdiko distantzia mantendu behar delako. Hiru erregeen hitzorduak honakoak dira: 17:30ean Malkorramendin, 17:50ean Andra Mari ermitan, 18:10ean Bureñako parkean, 18:30ean Maiza plazan, 18:50ean Aritzeta bidean, 19:10ean Dorremonean eta 19:30ean ikastola parean. Toki bakoitzean ezin dira 150 pertsona baino gehiago elkartu.
Iturmendi	17:00	Faleak eskutan, Iturmendiko haurrak kalez kale ibiliko dira hotsa ateratzen, ohikoa denez. Ez beraiek ezta gainontzeko iturmendiarrek ez dute aurten errege segiziorik ikusiko herrian, baina, ziurrenik, haiek utzitako opariek ez dute hutsik eginen.
Altsasu	17:00	Errege magoei gutuna bidali nahi dietenek Gure Etxea eraikinean propio jarritako postontzia izanen dute ilbeltzaren 3an eta 4an, 17:00etatik 19:30era. Ohi denez, ilbeltzaren 5ean etorriko dira Baltasar, Gaspar eta Meltxor Altsasura. Herritarrei lortia kultur gunean eginen diete harrera 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan. 15 minutuko harrerak eginen dituzte erregeek. Haurrek lehentasuna izanen dute, beraz, familia unitate bakoitzeko heldu bat besterik ezin izanen da sartu. Sarrerak kultur gunean edo haren web orrian eskuratu daitezke.
Ziordia	18:30	Errege segizioak Ziordiko Milagros ermitan hartuko du aterpea, baina hara joaten diren ziordiarrek ezin izanen dute gerturatu.



Urte berriaren ospakizunak Urdiainen. ARTXIBOA

Bridatutako urte akabera

Urtea despeditzeko eta ongi etorria emateko hitzorduak erabat aldatu ditu pandemiak

SAKANA

Osasun agintariek eguberrietan arduraz jokatzeko eskatu dute, horrela gaitza ez zabaltzeko. Abenduaren 31n aurten ez da San Silbestre kirol probarik izanen. Beren urteroko ohiturari eutsiko diotenak mendizaleak izanen dira. Baina Nafarroako perimetro itxiera dela eta, Aizkorrira igotzeko ohitura zutenek ezinen dute igo. Urtea mustutzeko ez dira su artifizialeak faltako ilbeltzaren leko aurreneko segundoetan. Baina tabernetako parrandak etxeratze aginduarekin ez dira beste urtekoen antzekoak izanen.

Urtea *Ur goiena, ur barrena* abestia kantatzen hasteko ohitura dago Irañetan, Arruazun, Lizarragabengoan, Etxarri Aranatzen, Bakaikun, Iturmendin eta Urdiainen. Etxeratze agindua eta jende

pilaketak eragozteko neurriak kontuan hartu beharko dituzte guztietan ere, 2021eko lehen orduetatik gaitza herrian barna zabaldu nahi ez badute. Etxarri Aranatzen, esaterako, presoen etxeetan kantatzeko eta haien senideei elkartasuna eta berotasuna eramateko 01:00etan ateratzen den taldeak, 18:00etara atzeratu du hitzordua.

Bestetik, Altsasun urteko lehen-dabiziko eguneko iluntzean udalak auzatea eskaini ohi du. Gure Etxea eraikinean elkartzen direnak gaztainak, intxaurrak eta ardoa dastatzeko aukera izanen dute. Baina ohitura hori 2021ean ez da izanen, COVID-19 gaixotasunak eragindako krisiaren ondorioz, eta gaitza ez zabaltzeko ezarritako osasun neurriak bete behar direlako.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA
Urte berri on!

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

FLORES S.L.

Urte berri on!

Utzuabar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

BEROKUNTZA - NEKAZARITZA - AUTOMOZIOA

Lakuntza

Urte berri on!
Etxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte
948 576 016 - 609 421 680

PORTUKO
okidenaja

Urte berri on!
Enkargua aurretik egin

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763



Ornako iturria, Koskobiloren azpian eta Olatzagutiko porlandegiaren atzean dago.

Burundako historian atzera begirakoa

Ibarreko hainbat datu jaso ditu Jose Luis Erdozia Mauleonek artikulu batean, Erdi Aroaren akaberatik Aro Garaikidearen hasierara arte, 1268tik 1816ra. Demografiaren aparte, geografia, ekonomia, historia eta onomastika datuak aipatzen ditu bertan

BURUNDA
Ibarraren sei mendeko historia-
ren "pintzelkada batzuk" jaso

ditu Jose Luis Erdozia Mauleonek
*Burunda harana (XIII-XIX): he-
rriak, populazioa, gaizkileak,*

ekonomia, onomastika artikuluan. Lan hori Nafarroako Gobernua-
ren Principe de Viana aldizkarian
argitaratu zuen, haren 273. zen-
bakiko 279ko ilbeltza-apirila
zenbakiaren separata gisa argi-
taratu zen lana.

Etxarriarrak bere lana Burun-
da hitzaren esanahiaren hipote-
si batetik abiatzen du. Mauleonen
arabera Burunda Bolunetatik
letorke eta errota ugari dauden
tokia adieraziko luke. Bestalde,
gaur egungo Burunda Bakaiku
eta Ziordia arteko sei herriek
osaten dute. Baina XIII. mendean
17 herri zeuden: Bakaikuko San
Benito ermitan Iturrun, Itur-
mendiko Aritzagaren ondoan
Eitzaga, Urdiainen Zangitu, Sa-
rabe eta Irurrita, Altsasun Hu-
raiar edo Ulaiar, Elkuren edo
Erkuden eta Olatzagutian Sara-
tsu edo Saatsu, Anguztina, Hor-
na eta Arquinano. Ziordia kasu
gehienetan izen horrekin agertzen
bada ere, kasu batzuetan Ayuca
(Ajuka) gisa agertzen da garai
bateko idatzietan. "Olatzagutia
eta Ziordia artean Aioko harria

toponimoa gelditu da". Defentsa
arrazoiengatik ziurrenik, Arakil
ibaiaren iparraldera zeuden he-
rriak desagertu egin ziren, Al-
tsasu eta Ziordia salbu.

Demografia

Hamarrenaren liburuan herri
bakoitzak zenbat pagatzen zuen
jasota dago. Hortik abiatuta, Er-
doziak kalkulatu du Burundan
1268an Urdiain zela herri han-
diena eta atzetik litzuzke Olatza-
gutia, Ziordia, Ulaiar, Anguztina,
Iturmendi eta Bakaiku; Altsasu
11.a litzateke tamainagatik.
1350eko suen liburuan Burun-
dako herri handiena Urdiain zen
(176 biztanle gutxi gorabehera),
populazio aldetik begiratura
atzetik litzuzke Olatzagutia (124),
Bakaiku (60), Ajuca (56), Izaga
(40), Altsasu (28). Burundan 512
bat pertsona biziko ziren orduan.

Erdoziak mende horietako suen
11 liburuetako datuak aztertu
ditu eta artikuluan biztanleria-
ren bilakaera erakusteko taula
batean eman ditu. Populazioak
1553 eta 1646 urteen artean behe-
ra egin zuen. Zergatia? "Kristo-
ren izurritea egon zen". Etxa-
rriarrak aztertu duen azken suen
liburua 1816koa da eta honako
populazioa zuten Burundako
herriek: Bakaikuk 296, Iturmen-
dik 366, Urdiainek 614, Altsasuk
686, Olatzagutiak 595 eta Ziordiak
391; ibarrak guztira 2.948. Gaur
egun ia 11.000 biztanle ditu orain
Burundak. "Salto handiena Al-
tsasuk eta Olatzagutiak eman
zuten, trenaren eraginez".

"Gaizkileen muga"

Ikerlari etxarriarrak azaldu due-
nez, "Araba, Bizkaia eta Gipuz-
koako jauntxoek Gaztelako erre-
gearekin ituna egin zuten 1200
urtean, beraiek horrela askoz
ere hobe aterako zirelako". Sa-
kana Nafarroako erreinuko mu-
gan utzi zuen, "gaizkileen mu-
gan". "Arazo handiak izan ziren
eraso egitera etortzen ziren
Aguraingo eta Lazkaoko jaun-
txoen jendeekin, lapurrekin.
Goñi aldean ere lapurretak egi-
ten zituzten. Gehienetan azien-
daren zuten, baina jendeari
ere lapurtzen zieten".

**1536KO BURUNDAKO
ORDENANTZAREN
37 ARTIKULUEN
LABURPENA
EUSKARAZ EMAN DU**

Lizarraldeko merino Juan de
Rouvray Sakanako ondasunak
helburu zituzten "malfechores
d'Arbizu" gaizkile taldea desegin
zuen 1349an. "Arbizuko jauregi-
ko jauntxoak erabat kide-tuta ze-
goen Lazkaokoarekin. Lizarra-
gako eta Bakaikuko apaizak eta
haien semeak laguntzaileak ziren.
Hemen lapurtzen zituzten ani-
maliak non-nahi saltzen zituzten.
Egun argitan eta jendaurrean
lapurtzen zuten ere".

Ekonomia

XV. mendean Arakilen eta Bu-
rundan lantzen ziren laboreak
desberdinak direla gatzigatu du
Erdoziak. "Arakilen garia eta
gaur egun normalak diren labo-
reak asko ateratzen ziren. Baita
ardoa ere. Uharte Arakileraino
ailegaten da. Arakilen artoa
(artaxiki) bat ere ez eta Arana-
tzen eta Burundan, berriz, artoa".
Ekoizpenagatik erregeari zergak
ordaindu behar zitzaizkion eta
hortik ondorioztatzen da Burun-
dak ekoizpen txikiena zuela.
Erdoziak azaldu duenez, "Araki-
len auzo (familia) bakoitzeko 0,42
florin pagatzen zen, Aranatz
aldean 0,54 eta Burundan, berriz,
0,28. Bataz bestekoa, gutxi gora-
behera 0,43 florin auzoko".

Sakanan garai hartan basotik,
abeltzaintzatik eta nekazaritza-
rik bizi ziren. "Burundan azien-
dak eta basoak garrantzi handia
zuten". 1563ko Burundako orde-
nantzan hura guztia zehaztuta
zuten. Erdoziak 37 artikuluen
laburpena euskaraz eman du.

XVIII. mendean "Burunda, eko-
nomikoki, oso-oso potentea iza-
tera pasa zen, mandazaintza eta
merkataritza ibarraren ekono-
miaren euskarri bihurtu ziren".
1711n Burundan 58 mandazain
zeuden (25 Iturmendin, 19 Urdia-
in, 6 Bakaikun, 5 Altsasun eta
Olatzagutian eta 1 Ziordian). "85
mando zeuden, ia erdiak Itur-
mendin. Gero ikusten da herrie-
tan zein etxe klase dauden!" Er-
doziak gaineratu zuenez, "lanbi-
de oso garrantzitsua izan zen eta
1700 eta 1850 urteen artean Bu-
rundatik 75 pertsona atera ziren.
Ez ziren migratzaileak, negozio
gizonak baizik". 24 Iturmendikoak,
11 Urdiaingoak, 9 Altsasukoak,
Bakaikukoak eta Olatzagutiakoak.
Nora jo zuten ere zehaztu du etxa-
rriarrak: 17 Madrilera, 9 Donos-
tiara, 9 Caracasa (Venezuela),
8 Indietara, 7 Zaragozara, 5 Ha-
banara (Kuba), 4 Tuterara, 2
Iruñera eta Baionara.

ARALAR TXIRRINDULARI TALDEA
GUSTOKO DUZU TXIRRINDULARITZA?
LAGUN BERRIAK EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?
6 eta 17 URTE ARTEAN BADITUZU
ETA KIROLAZ ETA NATURAZ GOZATU NAHI BADUZU
LAGUNEN ARTEAN...

Tel. / Whatsapp 600 22 76 33
aralart@gmail.com

**IGO ZATEZ TXIRRINDULARI ETA ETORRI GUREKIN!!!
ANIMA ZATEZ!!!**

AGENDA

HURRENGO GUAIXE ASTEKARIA URTARRILAREN 15EAN IZANEN DA. EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaxe.eus

OSTEGUNA 24

ETXARRI ARANATZ Elkartasun txokoa eta etxez etxeko diru bilketa. Sarek antolatuta. **11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara, plazan.**

OSTIRALA 25

ETXARRI ARANATZ Urteko azken ostirala: Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratze berezia. **20:00etan, plazan.**

LARUNBATA 26

UHARTE ARAKIL Mendi irteera: Fazerioari itzulia. Floren Beraza eta ondare taldeak gidatuta. 3 orduko itzulia. **09:30ean, Urruntzuren.**

ARBIZU Rubenekin elkartasun kontzentrazioa. **13:00etan, plazan.**

ETXEBERRI Izaskun Mujika ipuin kontalariaren saioa. **16:30ean, herriko etxean.**

ALTSASU Eguberrien banakako erremote profesionaleko hamabosgarren txapelketa. **17:30ean, Burunda frontoian.**



ARRUAZU Xabier Unanuaren eta Aritz Ganboaren Bideak dokumentalaren proiektzioa. **17:00ean eta 19:00ean, herriko etxean.**

ETXARRI ARANATZ Gazteok zuekin! Presoen aldeko mobilizazioa Ernaik antolatuta. **19:00etan, plazan.**

ALTSASU Haize Berriak bandaren Remember festa ikuskizuna. **19:30ean, Iortia kultur gunean.**

IGANDEA 27

BAKAIKU Haize Berriak bandaren kontzertua. **12:30ean, elizan.**

UHARTE ARAKIL Zirika Zirkusen Berrerabizi ikuskizuna. 3 euro. **17:00etan, frontoian.**

LAKUNTZA Gazte, antolatu sozialismoaren alde. COVID-19 birusa eta krisi kapitalista hitzaldia. Ondoren, Kontzertua: Sarabe eta Luken. Sakanako GKS-ek antolatuta. **17:00etatik aurrera, kultur etxean.**

IZURDIAGA Makusai taldearen kontzertua. Sarrerek ordu erdi lehenago. **19:00etan, elkartean.**

IRURTZUN Xabier Unanuaren eta Aritz Ganboaren Bideak dokumentalaren proiektzioa. **17:30ean eta 19:30ean, kultur etxean.**

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. **20:00etan, plazan.**

ASTELEHENA 28

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, udaletxearen aurrean.**

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Hil kanpaiak gaurkotasunezko filmaren emanaldia euskaraz
Ostirala 25: 19:30
Igandea 27: 19:30

Trolls 2: Gira mundial familiarteko filmaren emanaldia
Igandea 27: 17:00

Madame Curie gaurkotasunezko filmaren emanaldia gaztelaniaz
Ostirala 1: 19:00
Igandea 3: 19:30

En guerra con mi abuelo familiarteko filmaren emanaldia
Igandea 3: 17:00

Nieva en Benidorm gaurkotasunezko filmaren emanaldia gaztelaniaz
Osteguna 7: 19:00
Ostirala 8: 19:00
Igandea 10: 19:30

Dragoiaren gidaria familiarteko filmaren emanaldia euskaraz
Igandea 10: 17:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

My Mexican Bretzel zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 7: 19:00
Igandea 10: 19:30

ALTSASU Ipuin kontalaria: Lur Usabiagaren Etxean goxo. **12:00etan, Iortia kultur gunean.**

ASTEARTEA 29

ALTSASU Ipuin kontalaria: Xabier Artiedaren Ipuinen menua. **12:00etan, Iortia kultur gunean.**

ASTEAZKENA 30

ALTSASU Ipuin kontalaria: Birjiñe Albiraren Gau txurria. **12:00etan, Iortia kultur gunean.**

IRURTZUN Abominable filmaren emanaldia gaztelaniaz. 2 euro. **16:30ean eta 18:00etan, kultur etxean.**



UHARTE ARAKIL Uriz Pi Ahizpak erakusketa. **Abenduaren 30era, udaletxean. Igandetik ostegunera 11:00etatik 13:00etara eta ostiraletan eta larunbatetan 18:00etatik 20:00etara.**



ALTSASU UharTE Zentroaren Uholdeak-Claustrofilia erakusketa. **Urtarrilaren 17ra, Iortia kultur gunean. Asteleheneetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi aurretik eta igandetan 16:00etatik 20:30era.**

OSTEGUNA 31

IRURTZUN Trinitatera igoera. **08:30etik aurrera.**

OSTIRALA 1

ETXARRI ARANATZ Ur goiena, ur barrena urteberriari kantuz kalez kale. Sarek antolatuta. **18:00etan, plazatik.**

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatuen aldeko

brindisa eta kontzentrazioa. **20:00etan, plazan.**

LARUNBATA 2

HIRIBERRI ARAKIL Tramankuluren Bertintasunaren historia ezagutzeko scape rooma. 12 urtetatik 16 urtetara. Gehienez sei pertsonako taldeak. Izena ematea: arakilkultura@gmail.com edo Whatsapp 634 584 226. 3 euro pertsonako. **16:00etan, 17:30ean eta 19:30ean, herriko etxean.**



DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

Urte berri on!

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



UHARTE ARAKIL *Amico on the beach* ikuskizuna. 3 euro. 19:00etan, udaletxean.

IGANDEA 3

SATRUSTEGI *Dabixiren ¿Y... Pepu?* zirko ikuskizuna. 16:30etan, elizaren atarian.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN *Lur eta Amets* filmaren emanaldia euskaraz. 16:30etan eta 18:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 8

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

LARUNBATA 9

SAKANA *Bidean gara herriz herri, auzoz auzo mobilizazio nazionala*, Irurtzunen, Arakilen, Uharte Arakilen,

Arruazun, Lakuntzan, Arbizun, Lizarrangoan, Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Altsasun eta Olaztin. Sarek antolatuta. 17:30etan, plazan.

LAKUNTZA Xabier Unanuaren eta Aritz Ganboaren *Bideak* dokumentalaren proiektzioa. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Rolabola konpainiaren *Rock Cirk* ikuskizuna. 19:00etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 10

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 11


ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 12:00etan, udaletxearen aurrean.

OSTEGUNA 14

ETXARRI ARANATZ Askotariko *Sakana, Aniztasuna*erein. *Trans-formatzen* dokumentalaren aurkezpena. HiKiru elkarteko Ekaitz Goikoetxearekin eta Naizen elkarteko Edurne Kochekin, eta Kattalingune zerbitzuaren aurkezpena Goretzi Etxeparearekin. 19:00etan, kultur etxean.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Osteguna, 24




Goizean ateri eutsiko dio, baina egunak aurrera joan ahala eurrira egingo du. Temperaturak ere behera egingo dute pixkanaka egunaren azken orduetan.

Ostirala, 25




Temperaturaren jaitzierarekin, elurra etorriko da gurera, elur maila 400 metrotan izanen da. Eguberri egun txuria izanen da.

Larunbata, 26



Larunbatean ere elurra izango dugu, baina prezipitazio gutxiago espero dira. Ipar haizeak gainera, hotz sentsazioa areagotuko du.

Igandea, 27



Egunean zehar temperaturek gorako bidea hartuko dute, eta elurrak euriari egingo dio lekua. Elur mailak gora egingo du.

DUELA 25 URTE...



Eguberrietako marrazkiak Ziordian

Eguberri buruzko marrazkiak eskatu zizkieten lehenik Ziordiko haurrei. Txikiak animatu ziren. Haiek egindako lanekin herriaren etxeko auzo gelan erakusketa jarri zuten abenduaren 24an eta 25ean. Hura ikustera pasa ziren ziordiarrek botoa emateko eskubidea zuten eta hiru sarituak honakoak izan ziren: Olaia Ruiz de Luzuriaga, Maialen Martin eta Haizea Berasain. Handien mailan Kepa Azpirozendako izan ziren sariak. Bestalde, abenduaren 28an Ziordiko gaztetxearen aurreko urteurrena ospatu zuten.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egurrezko bi kubxa salgai: Etxarri Aranatz, prezio negoziagarria. Deitu 609 522 706

OHARRAK

Altsasuko mendigoizaleak: Mendian federatu nahi duen edonork, astelehenean eta asteazkenean 20:00etatik 21:30ra mendigoizaleen egoitzan (Erkuden kalea 8.zenbakian), izena emateko aukera du.

"Aspace Nafarroako egoitza bizikletak gabonetarako" kanpaina abiatu du: 45.000 euro lortu nahi ditu, bost tandem bizikleta

egokitu erosteko, Baztango bailaran aisialdi inklusiboa sustatzeko. Urtarrilaren 15era arte egonen da aktibo kanpaina www.retoaspace.org webgunean. Transferentzia bidez egin dezakezu zure donazioa ES70 2100 8988 8602 0001 5021 edo BIZUM bitartez ASPACE NAVARRA 00537 kodearekin.

Etxarri Aranatzko Kultur, kirol eta jendarte entitatei dirulaguntzak emateko deialdia: Elkarteek bete beharreko baldintzak; irabazteko asmorik ez izatea, egoitza soziala herrian izatea, zerga betebeharrak etab. ordaintzekak egunean izatea. Informazioa gehiago www.etxarriaranatz.eus edo Udaletxean bertan. Dokumentazioa aurkezteko epea abenduaren 31an amaituko da, 14:00etan.

Etxarri Aranatzko abesbatzaren egutegia salgai: 1942tik 2020ra korralaren ibilbidea erakusten duten 60 argazki ditu. 10 euroren truke Xaxeta, Sabando, Urgain, Goikoetxea herb eta Ilaia ileapaindegian. Ekarpen txiki bat korralaren jarduerari laguntzeko.

Arropa bilketa: Etxarri Aranatzko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du astelehenean, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskararekin sartzera.

LEHIAKETA

Atsotitz argazki lehiaketa: Parte hartzaileek atsotitz bat irudi batean txertatuta aur-

keztu behar dute. Sormena ere landu nahi denez, esaera berriak sortzeko aukera dago. Gehienez 3 aurkeztu daitezke. Abenduaren 31 baino lehen hona bidali: 656 303 767 edo. Bi taldek bozkatuko dute: batetik, irudigintza eta eskara arloko 5 epaimahaikidez osatutako taldeak, eta bestetik nahi duten guztiak Telegramen talde honetan bozkatzeko aukera dute: urtarrilaren 5etik 31ra. E-maila otsailean, saria 100 euro. Informazio gehiago eta antolatzaileen webgunean.

Ayuda Contenedores erakundearen material bilketa berri marxan: Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernu Kanpoko Erakundearen material bilketa egiten hasi da berriz. Denetarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskoleta materiala, jostailuak, bizi-

ketak, higiene produktuak, haur bialak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenean, azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material bilketa, Altsasuko Frontoiko Zeharbidetaren 14. zenbakiko udalaren bajeran. Poltsak ibixita eraman behar dira, eta astebete ibixita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotakoa, edukiontzietan.

Aralarko santutegian bisita gidatuak: San Migel santutegia ezagutzeko bisita gidatua egin daiteke. Izena emateko hots egin 948 373 013 edo miguelxcel-sis@gmail.com.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.eus

Guaixeraren bulegoa eta Beleixe irratia

ITXITA

Urtarrilaren 11n itzuliko gara

beleixe guaixe fundazioa guaixe

Zorion agurrak jartzeko zorion@guaixe.eus

ESKELA

Vanesa

Eskerrik asko ekarlanean kultur ekintzak antolatzeko prestutasunagatik.
Beti egongo zara gure bihotzetan

Arkatx liburudendako lagunak

ESKELA

Vane

Zurekin igarotako une guztiak,
altxorra bezala gordeko ditugu

gautxori
taberna

Charitza

ESKELA

Vanesa

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin
Zuekin gaude

Zuen lagun tabemariak


ESKELA

Vanesa

Sekulako,
eta betiko,
maite zaitugu Vane!

Zure kuadrilla

ESKELA



Remigio Lanz Hernandez

Iturmendin hil zen, 2020ko abenduaren 8an

Bihotz beroa, atsegina, su eder bat bezalakoa neguko gau hotzean

Zure ehiztari kuadrilla
Bakaiku - Iturmendi

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

HERIOTZAK

- **Ines Otxoa Galarza**, abenduaren 7an Ziordian
- **Jacinta Maiza Lakuntza**, abenduaren 12an Lizarragan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Igoa eta Vilariño martxa onean

FUTBOLA Profesionalak ez diren eta 2020/2021 denboraldian lehiatzen dauden futbol jokalariek sakandarra bakarrik dira Irati Igoa (Mulier) eta Maitane Vilariño (Osasuna B). Taldekide onak eta arerio zuzenak, Lehenengo Nazionalen gorenean egon nahi dute

Maidar Betelu Ganboa

ETXARRI ARANATZ / OLAZTI

Pandemia dela eta, egun soilik Espainiako Futbol Federazioak antolatutako ligak ari dira jokatzen. Jardunean dauden gutxienekoen artean daude Irati Igoa eta Maitane Vilariño futbolari sakandarrak, Espainiako Futbol Federazioak Lehenengo Nazional mailako 2A multzoan aritzen direlako, lehena Mulier taldean eta Osasuna B taldean bigarrena. Denboraldia berezia ari da izaten, Nafarroak mugak itxi zituzten zenbait jardunaldi atzeratu zirelako, baina berriro ere martxan daude eta duela bi aste elkarren arteko derbia jokatu zuten.

Bi ibilbideek Mulierren egin zuten topo

Irati Igoa Sesma eta Maitane Vilariño Mendinueta futbolari bikainak dira. Bakoitzak bere ibilbidea du, baina 2017/2018an taldekide izan ziren Mulier taldean. Irati Igoak 19 urte ditu eta Etxarri Aranatz taldean hasi zen futbolekin, mutilekin talde mistoan. Ondoren emakumezkoen Altsasu talde sortu berrian aritzeko deitu zuten, eta handik Mulier taldera egin zuen salto, 14 urte zituela. Bertan jarraitzen du eta taldeko ezinbesteko jokalarietako bat da. Maitane Vilariño, berriz, 18 urte ditu, Olazti Sutegei futbol taldean hasi zen, mutilekin talde mistoan, eta gero Aguraingo emakumezkoen taldean. Urte bat eman zuen bertan, eta Arabako selekzioetik deitu zioten bizpahiru partidetarako. Segidan Gasteizko Aurrera taldera joan zen. 2017an Mulier taldeetik deitu zuten, eta bertan denboraldi bat egin zuen Irati Igoa, Aroa Cerezo eta Ane Cantero sakandarrekin batera. Horretaz gain, Nafarroako se-



Irati eta Maitane, abenduaren 13an elkarren kontra lehiatu zirenean. UTZITAKOIA

lekzioarekin aritu zen. Ondoren, Gasteizko Aurrera taldera bueltatu zen, beste bi denboraldi egin zituen bertan, Euskadiko selekzioarekin aritu zen, eta aurtun,

2020/2021 denboraldian, emakumezkoen Osasuna B taldera etorri da eta taldeak jokatutako partida guztietan minutuak izan ditu.

Futbolekin aritzearekin pozik

Bizi dugun egoera kontuan hartuta, biak pozik daude futbolekin aritzeko aukera dutelako. "Zortea dugu jokatzen ari garelako. Nafarroako Federazioak Txapelketa guztiak geldirik daude, baina gure txapelketa Espainiako Federazioak antolatzen duenez, martxan gaude, eta ez da gutxi. Ea gutxika normaltasunera goazen eta liga guztiak hasten diren" dio Irati Igoak. "Liga gorabeheratsua ari da izaten. Nafarroako mugak itxi zituztenean geldirik egon behar izan genuen, bizpahiru jardunalditan, baina gutxienez ari gara eta berriro martxan gaude, erritmoa hartu dugu" gaineratu du Maitane Vilariño.

Mulier eta Osasuna B taldeez gain, Pradejon, Berriozar, Logroño B, Castejon, Atletico Revellin, Itaroa Huarte eta Logroñes lehiatzen ari dira Lehenengo Nazional mailako 2A multzoan. Pradejon taldea da liderra (15 puntu), sailkapenean 2. postuan dagoen Maitane Vilariñoaren Osasuna B taldearekin puntuetan berdinduta (15 puntu). Bi taldeek partida bat gutxiago dute jokatuta, euren artekoa, eta atzeratutako partida Gabonetan jokatuko dute. Mulier sailkapenean 7. postuan dago (4 puntu), 2 partida gutxiagorekin. "Federaziotik esandigute ilbeltzaren hirugarren asterako lehen itzuliko jardunaldi guztiak jokatuta izan behar ditugula, eta Gabonetan atzeratutakoak jokatuko ditugu" azaldu du Iratik.

Elkarren arteko derbia

Irati eta Maitanek abenduaren 13an jokatu zuten elkarren arteko derbia. Mulierrek sartu zuen lehendabiziko gola, Osasuna Bk minutu batera berdindu zuen eta bigarren zatian, penalti bati esker, garaipena lortu zuen Osasuna B taldeak. "Osasuna da; bagenekien partida zaila eta gogorra izango zela, baina gu lehendabiziko momentutik borrokatzera atera ginen eta aurreratzea lortu genuen. Berehala berdindu zuten, eta parekatuta joan zen partida, baina 15 minuturen faltan arbitroak Osasunaren aldeko penaltia seinaleztatu zuen, polemika tarteko, eta Osasunakoek ez zuten huts egin eta partidak ihes egin ziren. Dena den, lan ona egin genuen eta gustura geratu ginen" aipatu du Iratik. Maitanek aitortu du

hasieran urduri zegoela. "Derbia, nire taldea izandakoaren kontra aritu beharra... hasieran urduri nengoen, baina gero ongi, oso gustura" dio. Irati oso ongi ikusi zuela gaineratu du. "Irati, Irati da, sekulako jokalaria. Ez zuen aurrean jokatu, ea horrek harritu ninduen. Erdilari aritu zen, oso ongi. Partida bukaeran egon ginen elkarrekin, oso gustura" azaldu digu.

Aurtengo helburuak: gorenean egotea

Lehenengo Nazional mailako 2A multzoan dabilen taldeak "oso onak" direla dio Maitane Vilariño. "Guztiak antzeko maila dute; aurtun mailaz igo diren taldeak kategoriatik berrira ez direla guztiz egin sumatzen da, baina kontuz, ez zaitezke fio" adierazi du. Osasuna B-ren helburua lehen postuan sailkatzea da. "Horrela Emakumezkoen 2. maila-Reto Iberdrola mailara igozko aukera izango genuke, beti ere 2. mailan dabilen gure talde nagusia, Osasuna A, lehena sailkatu eta emakumezkoen 1. mailako Iberdrola mailara igoko balitz. Beraz, Osasuna B-ren helburua Lehenengo Nazional mailako 2A multzoan lehen postuan sailkatzea da" nabarmendu du Vilariño. Pertsonalki, Osasunako talde nagusira igo nahiko luke. "Gure taldeko lau jokalariek batzuetan talde nagusian aritzen dira. Niri entrenamendu bat egiteko deitu ninduten eta ea gehiagotan deitzen didaten. Talde nagusira salto egitea gustatuko litzaidake" nabarmendu du olaztiarrak.

Irati Igoaren Mulierren helburua Lehenengo Nazional mailako lehen 5 postuen artean sailkatzea da, kategoriari eusteko. "Horrela mailari eustea ziurtatuko genuke, beharago sailkatuz gero tentsio gehiago eta presio gehiago izango genukeelako kategoriari eusteko. Oraindik ez dago ezer itxita, bigarren buelta oso falta da eta lehen bueltatik hiru partida ditugu oraindik jokatzeko. Gogorra izango da, baina liga oraindik irekia dago eta helburua lor daiteke" dio.

"JOKATZEN ARI GARA, ZORTEA DUGU; NAFARROAKOAK GELDI DAUDE" IGOA ETA VILARIÑO

Irati Igoa, Mulierren izarra

Irati Igoa Mulierreko ezinbesteko jokalarietako bat da. "2018an Nafarroako Kopako finala jokatu genuen Berriozarren kontra. 2 eta 1 irabazi genuen eta nik sartu nituen bi golak. Nik uste dut hori denon gogoan geratu zela: lehendabiziko finala, lehendabiziko kopa... Bigarren kapitaina naiz, golak sartzen jarraitzen dut eta ez dakit izarra naizen, baina bai taldeko zutabeetako bat" dio etxarriarrak.

Hasieran aurrelaria zen, baina egun erdilari aritzen da. "Aurreko denboraldian lesio dezente egon ziren taldean, eta entrenatzaileak beste posizio batean jokatzeko proposatu zidan, aurrelari asko geundelako. Hiru partidetan erdilari lanetan egon nintzen, oso gustura, eta beste bitan hegalean ibili nintzen, karrilera, aurreraka igotzen. Aurten erdilari postuan hasi naiz eta ziuurrik bertan jarraituko dut. Egia esan, eroso nabil. Taldea laguntzeko bada, nik ez dut inolako arazorik edozein postutan jokatzeko, baina aitortu beharra dut erdilari postuan oso ongi nagoela" nabarmendu du.

Irati Igoak 14 urte zituen Altsasu taldeetik Aroa Cerezo defentsa lakuntzarrarekin Mulier taldera joan zenean. "Erregional maila batetik 2. mailara igotzea sekulako saltoa izan zen, eta hasieran kosta egin

zitzaidan egokitzea, erritmoa hartzea, jendea ezagutzea, dena kontrolatzea... Lehendabiziko urtea egokitzapen urtea izan zen, eta, ordutik hobetzen hasi nintzen" dio.

Futboleko jarraitzeko gogotsu dago. "Azken bi urteetan Berriozar taldeetik deitu izan naute, baina maila berean aritzeko nahiago dut Mulierren jarraitzea. Mulierretik jokalaria asko doaz Osasunara, eta taldea berregin behar izaten dugu etengabe" azaldu du. Osasunatik deituz gero "pentsatuko lukeela" erantzun du. "Proposatutako baldintzak ongi aztertu beharko nituzke, Mulierren oso gustura nagoelako" azpimarratu du.

Palista eta entrenatzailea

Mulierreko futbolaria izateaz gain, Irati Igoa Oberena klubeko palista da, tarteka esku pilotan aritzen da eta entrenatzailea da. 2019an Nafarroako Kluben Arteko Pala Txapelketa irabazi zuen Maite Ruiz de Laramendirekin batera, eta Sakanako Pala Txapelketa. "Guztira 15 txapela ditut; hor daude Euskal Herrikoa, Nafarroakoak eta

"MULIERREN OSO GUSTURA NAGO; EZ DAKIT IZARRA NAIZEN, BAINA BAI TALDEKO ZUTABEETAKO BAT"



Irati Igoa, futbolari izateaz gain, palista da eta pala eta futboleko entrenatzailea. UTZITAKOIA

Sakanakoak. Ez dakit bakoitzetik zenbat diren" aitortzen du, irribarrez. Berriki Nafarroako Kluben Arteko Pala Txapelketako finalerdiak jokatu zituen Irati Saraguetarekin, baina 30 eta 26 galdu zuten Lekunberrin Paula Gorostiaga eta Amaia Espinalen kontra. "Hasieratik okertu zitzaidan partida, frontoi horrek ez dit zorriker ematen" dio. Eguberrien ondoren Nafarroako Trinkete Txapelketan hasiko da, Gomazko Pala modalitatean.

Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkarteko palisten entrenatzaileetako bat da Irati, Olaia Izagirrearekin eta Aristorenarekin batera. Guztira 30-40 palista trebatzen dira, eta

Irati astelehenetako entrenamenduak gidatzen ditu. Horretaz gain, Altsasuko emakumezkoen futbol 8 eta erregional taldeetako entrenatzailea da. "Altsasuko futbol 8ko txikiekin irailan hasi ginen entrenatzen. Pandemiagatik ezin dute partidari jokatu, baina eurak motibatzen saiatzen gara. Erregional taldeko entrenamenduak berriki hasi genituen, eta ea ilbeltzetik aurrera liga hasterik duten" opa du.

Aurrekoa gutxi ez balitz, Iruñean Kirolaren Gradua ikasten ari da. "Egunero zerbait daukat, baina moldatzen naiz" dio.

Maitane Vilariño, pozik Osasunan

Maitane Vilariñok Gasteizko Aurreratik Mulierreko ezinbesteko jokalarietako bat da. "2018an Nafarroako Kopako finala jokatu genuen Berriozarren kontra. 2 eta 1 irabazi genuen eta nik sartu nituen bi golak. Nik uste dut hori denon gogoan geratu zela: lehendabiziko finala, lehendabiziko kopa... Bigarren kapitaina naiz, golak sartzen jarraitzen dut eta ez dakit izarra naizen, baina bai taldeko zutabeetako bat" dio etxarriarrak.

Hasieran aurrelaria zen, baina egun erdilari aritzen da. "Aurreko denboraldian lesio dezente egon ziren taldean, eta entrenatzaileak beste posizio batean jokatzeko proposatu zidan, aurrelari asko geundelako. Hiru partidetan erdilari lanetan egon nintzen, oso gustura, eta beste bitan hegalean ibili nintzen, karrilera, aurreraka igotzen. Aurten erdilari postuan hasi naiz eta ziuurrik bertan jarraituko dut. Egia esan, eroso nabil. Taldea laguntzeko bada, nik ez dut inolako arazorik edozein postutan jokatzeko, baina aitortu beharra dut erdilari postuan oso ongi nagoela" nabarmendu du.

taldean oso pozik nago, ongi egokitu naiz. Oso gustura nabil" aipatu du. Lehen erdilaria zen Maitane, hegalean jokatzeko, karrilera, baina aurreko denboraldian, Gasteizko Aurreraren, zenbait partidatan aurrelari moduan aritu zen, erdian, eta postu horretan jarraitu du. "Osasunan aurrelari postuan kokatu naute eta oso gustura nago. Gauza asko ikasi ditut eta pixkanaka hobetzen ari naiz. Izan ere, hegala eta aurrelaria bi postu oso ezberdinak dira, joko asko aldatzen da. Aurrean zaudela, baloiak hartzea jaitsi behar duzu, gero buelta eman eta aurrera egin; hegalean aldiz, baloia hartu, driblatu, zentratu eta jaurtiketa egin. Gustura nago aurrelari" dio Maitanek.

Olaztiarrak 10. zentzua du Osasuna B-n. Taldearen sentazioak oso onak direla nabarmendu du, baina joera bat aldatu beharrean daudela aitortu du. "Ia partida gehienetan gaitzen hasten gara. Gero buelta ematen diogu, baina joera hori aldatu nahi dugu. Izan ere, horrela gehiago sufritzen da horrela, tentsio gehiagorekin jokatzeko da"

"OSASUNAK DEITZEA POZ HANDIA IZAN ZEN NIRETAKO; NAFARROAKO KLUB GARRANTZITSUENA DA"



Maitane Vilariño, eskuinean, asteburuan Logroñesen kontra jokatutako partidaren irudi bat. UTZITAKOIA

azaldu du. Pozik dago Maitane. "Orain arte partida guztietan jokatu dut. Gol bakarra sartu dut, baina asistentzia dezente egin ditut, eta taldea bide onean doa" dio.

Bere nahia Osasunako talde nagusira igotzea litzateke. "Entrenamendu batean aritu naiz talde nagusiarekin, ea gehiagotan egoteko aukera dudana" nabarmendu du.

Emakumezkoen futboleko hasieratik gaur egunera arte egoera asko aldatu dela uste du. "Ez dago alderik. Orain emakumezkoen futbolak baliabide gehiago ditu, komunikabideetan gehiago ateratzen da eta beste begirune bat dago emakumezkoen futbolarekiko. Dena den, oraindik badago zer egin" ondorioztatu du.

"Dakarra beste mundu bat da; hura bizitzeko irrikitan nago"

IÑAKI MUGIKA IZAGIRRE MOTOR MEKANIKARIA ETA MOTOR GIDARIA

MOTORRA Club Aventura Touareg taldeko pilotuen mekanikarietako bat izango da Iñaki Mugika altsasuarra ilbeltzaren 3an Saudi Arabiako Jeddahen abiatuko den Dakar 2021ean

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Iñaki Mugika Izagirrek motorra darama zainetan. Osaba motorzalea du eta berarekin hasi zen mundu honetan, txikitik. "Osaba motorrarenkin ateratzen zenean nik bere atzetik joan nahi nuen plastikozko nire motor txikian" gogoratzen du. Motorra da bere pasioa eta bere ogibidea, M-86 motor tailerra kudeatzen baitu Altsasun. Abenduaren 26an Dakar 2021era joango da Club Aventura Touareg taldeko mekanikari, eta esperientzia bizitzeko irrikan dago.

ALTSASUKO M-86 MOTO TAILERRA
M-86 motor tailerra duzu Altsasun. Nondik dator izena?

Mugika dut abizena eta Mugi izenarekin ezagutzen naute, hortik M. Eta 86, jaio nintzen urtea da; motor lasterketetan aritzen naizenean beti dorsal zenbaki horrekin aritzen naiz. Horregatik jarri nion M-86 izena moto tailerrari. Mekanikaria izan naiz beti. Hasieran Altsasuko kamioi tailer batean aritu nintzen, eta ondoren Tuteran ibili nintzen motor tailer batean. Nire kabuz hastea erabaki nuen eta 2016ko abenduan zabaldu nuen motor tailerra.

Sakanan badago motor tailer bat zabaltzeko adina merkaturik?

Hasieran ez nuen uste horrenbesteko merkaturia egongo zenik, baina harrituta nago. Geroz eta bezero gehiago ditut. Bezeroak

sakandarrak, arabarrak eta gipuzkoarrak dira, baita bizkaitar batzuk ere. Motorzaleak pixka bat arraroak gara, motorra gure seme-alaba bezalakoa da guretzat. Autoa toki batetik bestera joateko erreminta da, baina motorra zure motorra da. Maitasuna dago tartean, beste harreman mota bat. Horregatik nahiago izaten dugu motorrak soilik motorrak konpontzen dituzten tailerrera eramatea.

Denetariko motor probetan aritu izan zara: motokrosean, enduroan, abiadura lasterketaren batean... eta horretaz gain lagun kuadrillarekin errepede irteerak egiten dituzu.

Bai, nik motor guztiak ditut gustuko. Hasieran bakarrik motokrosean aritzen nintzen, baina urteekin endurora pasa nintzen. Eta, orain, denetik pixka bat. Abiaduran ere aritu izan naiz. Etorkizunean ikusiko da. Lan asko dut, eta kosta egiten zait entrenatzeko denbora ateratzea. **Pilotu ona izan zara?**

Beno, pilotutxo... (kar, kar). 2012an Nafarroako Enduro Txapelketa irabazi nuen eta Nafarroako Motokros Txapelketan bigarren sailkatu nintzen. Go-goan dut ere Bartzelonako Enduro Jaialdiko "La trialera diabólica" izeneko proban 11. postuan sailkatu nintzela eta postu horri esker hurrengo egunean Palau Sant Jordi enduroko munduko txapeldunekin aritzeko aukera izan nuela. Se-

kulako esperientzia izan zen. Lasterketetan eta lagunekin egindako irteeretan ongi pasatzea, hori da gustuko dudana.

CLUB AVENTURA TOUAREG
Club Aventura Touareg taldeko mekanikaria zara. Zer nolako motor kluba da?

Club Aventura Touareg motor klubak Logroñon du egoitza. Rally kluba da, rally irteerak antolatzen ditu eta nazioarteko probetan ere beraiekin parte har dezakezu pilotu gisa izena eman gero. 2007an klubeko nagusia ezagutu nuen, Manuel Garcia "Murchi", Bartzelonan. Bertan lasterketa batean parte hartu behar nuen, eta nire lagun batek ezagutzen zuenez, elkarrekin bazkaldu genuen eta oso tipo interesgarria iruditu zitzaidan. Urteetara Madrilera elkartu ginen, Erakustazokan Club Aventura Touareg klubak jarritako standean. Orduan proposatu zidan ea prest nengoke Baja Aragon Nazioarteko Rallyan bere asistentzia egitea, bere mekanikari izatea. Animatu nintzen eta oso ongi pasa nuen. Ordutik beraiekin nabil, klubeko mekanikari izateko kontratatzen naute.

Zein rallytan aritu zara Club Aventura Touareg taldearekin?

2017an eta 2018an Baja Aragon Rallya egin nuen eurekin. Ondoren Marokon hilabete bateko irteerako asistentzia egitea proposatu zidaten. Hilabete bateko



Iñaki Mugika Club Aventura Touareg talderako asistentzia egiten. UTZITAKOIA

egonaldia egiten dute basamortuan; rally bat bezala da, baina klasifikaziorik gabe. 2019an egin nuen eta oso gustura egon nintzen. Antza, nire lanarekin kontentu geratu ziren, aurtan, 2020an, Intercontinental Rally Nazioarteko Lasterketan eurekin mekanikari joatea proposatu baitzidaten. Cadizetik atera ginen, Dakarraino. Berez lasterketa Parisetik ateratzen da, baina aurtan pandemiagatik ezinezkoa zen. Cadizen itsasontziz ibilgailuak guru-

"MOTORRA NIRE PASIOA ETA OGIBIDEA DA; TXIKITAN HASI NINTZEN MOTORREAN, OSABAREKIN"

"DAKARRAZ ESATEN DEN GUZTIA MOTZ GELDITZEN DA; EGUNERO BASAMORTUAN HERRI BAT JASOTZEN DUTE"

tzatu eta lasterketa Marokon hasi zen, Dakarraino. Esperientzia itzela izan zen. Ikusgarria. **Zure ibilbidean beste salto bat egin duzu eta aurki Dakar 2021ean parte hartuko duzu, Club Aventura Touareg taldeko mekanikari gisa. Rallya ilbeltzaren 3an hasi eta 15ean despidituko da eta Saudi Arabian jokatu da.**

Dakarra nabigazio lasterketa bat da. Roadbookean jasotako ibilbidea eta argibideak jarraitu behar dira, eta bidean dauden trabak unean bertan ikusi eta gainditu behar dituzu. Goizean goiz abiatzen dira pilotuak, eta iluntzeraino ibiltzen dira. Erresistentzia proba da, ez da abiadura proba. Aurreko urtean ibilbidea nahiko erraza omen zen, pilotuak oso azkar joan ziren eta sekulako istripuak izan ziren. Kexa asko egon ziren, eta badi-rudi aurtan proba gogortu dutela. Gure klubarekin 5 motorzalek hartuko dute parte. Motorren kategorian bi maila daude, pilotu arruntak, mekanikarien asistentzia dutenak, eta Original by Motul mailakoak, asistentzia



lñaki motorrean, bere pasioaz, gozatzen. UTZITAKOA



Motorrak lasterketan jarraitzea, hori dela euren lana dio lñakik. UTZITAKOA

mekanikoa eurak egiten dutenak. Touaregeko 5 pilotuetatik 2 Motul mailan ariko dira eta 3 ohiko mailan. Hortaz, hiru piloturen asistentzia egin beharko dugu.

HELBURUA: MOTORRAK LASTERKETAN JARRAITZEA

Asistentzia prestatzeko material asko eramaten duzue?

Kamioi bat eramaten dugu beharrezko erreminta, pieza eta motorrekin, baina gure pilotuek KTM etxeko motorrak erabiltzen dituzte eta KTMk Dakarrera bere kamioi propioa eramaten duenez, pieza asko bertan erosten dira. **Dakar rallya basamortuan gauzatzen da nagusiki. Basamortuko areak kalte handiak egingo dizkie motorrei, ez?**

Areak eta temperatura aldaketak sekulako kalteak eragiten dizkiete motorrei. Basamortuan egunez sekulako beroa egiten du, eta gauez kristoren hotza, eta hori motorrendako oso kaltegarria da. Egun guztia hotzarekin edo beroarekin ibiliz gero, motorra horretara prestatzen duzu, baina orain hotza, gero beroa...

Rally batean mekanikarien asistentzia nolako izaten da?

Goizean goiz, eguneko etapa hasi baino lehenago, mekanikariak kamioian abiatzen gara helmugaraino. Iritsi, kamioia hustu eta asistentzia gunea prestatzen dugu, pilotuak iristerako guztia prest egon dadin. Bestalde, pilotuen atzetik gure klubeko beste bi laguntzaile doaz, pick-up-etan, lasterketan momenturen batean pilotuengana bertaratu behar badute.

Mekanikarien lana motorrak puntuan jartzea da.

Gure lana motorrak lasterketan jarraitzea da. Gauean helmugara edo bivouacera iristen direnean, hurrengo egunerako martxan jartzea. Eta bidean edozer gauza gertatzen bada, telefono bidez konpontzen saiatzea. Beste konponbiderik ez badago, pilotuarengana joan beharko dira laguntzaileak, baina lasterketa martxan dagoenean mekanikariak ezin dute motorra konpondu, hori da araua. Pilotuek motorra konpon dezakete, baina mekanikariak ezin gara sartu

motorrak konpontzera. Hori bai, argibideak eman ahal dizkiegu. Halako probetan oso azkarra izan behar duzu. Ez da gauza bera motor bat tailerrean konpontzea, baliabide guztiak eskura dituzula, edo basamortu erdian ibili behar izatea. Hor ez dago elektrizitaterik ez argirik, eta guztia arez beteta dago. Bizirauterik hutsa da.

Nola iristen dira motorrak helmugara?

Pentsa! Okerrena istripuak izaten dira. Motorrek pieza pila eramaten dituzte, Roadbooka eta lokalizatzaile eta pieza asko. Horiek guztiak martxan egon behar dute, bestela pilotuak ezin dira hurrengo eguneko etapan atera. Eta lan gehiena hori izaten da. Bestalde, ez da egoten arazo mekaniko gehiegirik, motor gehienak berriak izaten direlako. Halako lasterketa batera ezin duzu motor zahar batekin joan. Motor gehienak hemen mustutzen dira.

Motor asko hausten dira?

Uste dena baino gehiago. Motorra aldatzen badute, pilotuek pena-

lizazioa jasotzen dute. Gure klubean moto bakoitzeko beste motor mekaniko bat eramaten dugu. Rally luze hauetan atsedendaldi egun bat egoten da, eta normalean egun hori aprobeztatzen dugu motoei motor guztiak berriak jartzeko.

Halako proba batean zenbat ordu egiten duzue lan mekanikariak?

Egun osoa. Etapak egunsentian abiatzen dira, goizeko 5etan edo 6etan, eta pilotuak ilunpean iristen dira helmuga; 12 ordu baino gehiagoko etapak dira. Biziraute proba da, hori da lasterketaren izpiritua, abentura bat da. Eta gu lehenago jarri behar gara martxan. Pilotuen aurretik egunsentian kamioiarekin atera, helmugara iritsi, asistentzia gunea prestatu, pilotuak iristen direnean motorrak puntuan jarri eta guztia bildu. Beti dago lana, beti dago zerbaitek egiteko.

Hortaz, Dakarrean 13 lan egun luze dituzue aurretik.

Bai. Orain arte Dakarreko ibilgailuen egiaztapenak Marsellan egiten ziren, baina COVIDa dela eta egiaztapenak Jeddah hirian egingo dira, bertatik abiatuko baita Dakarra. Abenduaren hasieran Marsellako portuan egon ginen, Dakarreko motor eta ibilgailu guztiak itsasontzira igotzen. Proban parte hartuko duten 75 auto, 42 kamoi eta 110 motor eta quad igo ziren itsasontzira, antolakuntza guztia kontuan hartuta, 679 ibilgailu, 8 helikoptero eta 15 edukiontzi ziren. Pentsa nolako proba den, munduko garrantzitsuenak.

BIVOUACAK, BASAMORTUAREN ERDIAN JASOTAKO HERRIAK Dakarraz zer espero duzu?

Taldekeide bat egona da, eta esan dit Dakarra nolako den ezin dela azaldu ere egin, han ikusten duzuna beste mundu bat dela.

"EGUN OSOKO LANA IZANEN DA; DAKARRA BIZIRAUTE PROBA DA, EGUNSENTITIK GAUERA"

"TENPERATURA ALDAKETAK ETA AREAK SEKULAKO KALTEAK ERAGITEN DIZKIE MOTORREI"

Gogotsu nago joateko, hura ikusteko ilusioa dut. Antolakuntzak 7 helikoptero daramatza, kamioiak, bi hegazkin, komunikaziorako dorreak, sekulako azpiegiturak, cateringak... Kontatzen duen guztia motz geratzen dela esaten du taldekideak. Basamortuaren erdian herri bat egiten dute. Bivouac deitzen zaio helmugako guneari, eta hiruzpalau kilometroko luzera du. Egun baterako muntaia da bivouaca, egun batetik bestera hurrengo helmugara eramaten baitute.

Pilotu eta mekanikari onenak bilduko dira Dakarren. Ba al dago miresten duzun eta Dakarren egongo den mekanikaririk?

Niretzat mekanikari guztiek dute meritu berbera. Han egoteak kristoren meritua du. Pilotuei dagokienez, urte hau oso arraroa da. Orain arte pilotuen jarraipena egiten zenuen, bataren sailkapena, bestearena... baina aurretik ez dakit zer gertatuko den lasterketan. Sorpresa izango da. **Club Aventura Touareg taldeko pilotuen helburua zein da?**

Gurea jende beteranoa da, bost pilotuetatik hiruk aurretik parte hartu izan dute Dakarren. Euren helburua proba bukatzea da, Dakarraz gozatzea. Gustura bukatzea eta lasterketan ongi ibiltzea. Hau euren zaletasuna da, ez dira pilotu profesionalak.

DAKARREKO BURBUILA COVIDak guztia baldintzatuko du. Dakarrek ehunka pertsona biltzen ditu. Pilotuak, mekanikariak, laguntzaile eta langileak, kazetariak... pandemia dela eta osasun neurri gogorak izango dituzue, ezta?

Bai. Abenduaren 15ean lehenengo PCR proba egin nuen, eta negatibo atera zen. 24an beste PCR bat egingo dut, 26an hegazkina hartzen dugulako. Jeddahera iristerakoan bi egun eman beharko ditugu hotelean konfinatuta, eta ondoren beste proba bat egingo digute. Burbuila antzekoa sortuko omen dute. Babesteko asko zaintzen ari naiz. Orain dela hilabete pasa motor irteerak utzi nituen eta ez naiz lagunekin egoten. Mundu mailako ekitaldia denez, gaitzaz babesteko burbuila bat sortuko dutela esan digute.

Lagunek zer esaten dizute?

Nire lagun gehienak motorraren mundukoak dira, eta pozik daude. Saudi Arabiara joateko gogoz nago, esperientzia bizi eta halako probetan asko ikasten delako.

Urteari agurra eta ongietorria, bakoitza bere kabuz

KIROLDEGIA Urtea agurtu eta urte berriari hasiera emateko ohiko probak ez dira antolatuko

Abenduaren 31n, urteko azken egunean San Silvestre herri lasterketan parte hartzeko ohitura errotuta dago Sakanan. Altsasun, Nafarroako proba veteranoenaren, 42. edizioa jokatu beharko litzateke aurten, eta Olaztin eta Irurtzunen urtea korrika despeditzen dute baita ere. Bestalde, Altsasu Kirol Elkarteak urtero Altsasutik Urbasara bizikleta igoera egiten du urteko azken egunean; aurten goa 38. San Silvestre Zikloturista Martxa litzateke, txirriindularien artean oso errotua dagoena. Ekitaldi hauek guztiak bertan behera geratu dira COVID-19 birusak sortutako pandemiagatik. Beraz, bakoitzak bere kabuz ibili beharko du.

San Silvestre birtualean parte hartzeko deia

Nafarroako Atletismo Federazioak San Silvestre birtualean parte hartzeko gonbita egin die Nafarroako korrikalari eta atletei: <https://sansilvestrenavarra.com> webgunean izena eman (dohainik) eta norberak bere kabuz egiten dituen korrikaldiko kilometroak (baita ere patinetan eta bizikletan egindako kilometroak) eta beste datuak emango ditu.

Mendira

Mendizaleen artean ere ohikoa da egun berezi hauetan mendira joatea. Urteko azken egunean, abenduaren 31n, Irurtzungoak Ergako Trinitatera, Altsasuko Mendigoizaleak eta Olaztiko Sutegikoak Aizkorrira eta Lakuntzakoak Lakuntzaskoarrira joan ohi dira, urteko lehen igandean Altsasuko Mendigoizaleak Bargainera jotzen dute eta Errege Egunean, ilbeltzaren 6an, Sakanako Mendizaleak taldeak antolatuta, mendizale sakandar guztiak Beriainen bildu ohi dira. Aurten, mendizale bakoitza bere kabuz ibili beharko da.

Altsasuk erremontearekin mustuko ditu lanak

ERREMONTEA / PILOTA Abenduaren 26an, larunbata, 17:30ean, Eguberrietako Banakako finalerdietako Zeberio II.aren, Ionon eta Otanoren arteko triangeluarra jokatu da lanak egin eta gero itxura berritua duen Burunda pilotalekuan

Burunda pilotalekuan egin berri diren lanak ikusteko aukera paregabea izango da larunbatean, abenduak 26, Altsasuko pilotalekuak lanen ondoko lehendabiziko jaialdia hartuko baitu. Hain zuzen ere, 15. Eguberrietako Banakako Txapelketa-Magna Sari Nagusiko bigarren finalerdia jokatu dira Burundan, Euskal Jai Remonte Fundazioak Altsasuko Udalarren laguntzarekin antolatuta. 17:30ean hasita. Lehenik eta behin binakako partida jokatu da: Aldabe eta Agirrezabala Matxin III.aren eta Larretxearen kontra, 35 tantotara. Eta, ondoren, Banakako Txapelketako bigarren finalerdia jokatu dute Zeberio II.ak, Ionek eta Otanok, formatu triangeluarrean. Hau da, hirurak hiruren kontra ariko dira, eta onena sailkatuko da final handirako.

Jasotakoa Josefina Arregirendako COVID-19 pandemia dela eta, beharrezko segurtasun neurriak zainduko dira, edukiera, distantzia eta beste. Sarrerak salgai daude, 5 eurotan, Iortia Kultur Gunean. Eguberrietako Banakako Erremonte Txapelketako antolatzaileak, Euskal Jai Remontek, sarreretan jasotakoa Josefina Arregi klinikari emango dio, dohaintzan.



Atzo Burunda pilotalekua txukun uzteko garbiketa lanetan zebiltzan langileak.

91.581,64 euroko lanak

Burunda frontoia 1954ko irailaren 14an mustu zen, baina ez zuen irekitzeko lizentziarik. Irregularitasun larri hori lehenbailehen konpontzeko eta Nafarroako Gobernuaren Babes Zibilaren eskakizuna bete ahal izateko, Altsasuko Udalak zenbait aldaketa egin ditu erakinean. Esaterako, harmailetako pasabideak edo ebakuazio bideak zabaldu egin dira. Horretarako, harmaila erdian dauden bideetako bi aldeetako ilara guztieta-ko aulki bana kendu da, eta er-

tzetako bideetan beste bat. Ate bat ere aldatu dute. Aldi berean, kantxaren ondoko aldean aldage- la edo komun egokiturik ez zegoen, eta egin da, eta irisgarritasun araudira egokitzeko arkitektura oztopoak kendu ditu udalak. Horrekin batera, kantxako zoladura leundu dute eta beste hainbat hobekuntza egin dira. Lanek 91.581,64 euroko arrerontua izan dute eta egunotan garbiketa eta doikuntza lanak egiten ari ziren langileak, larunbateko mustutze jaialdirako guztia prest egon dadin.

Leire Lazkozen saria

SASKIBALOI Aurreko ostiralean CBASK taldeko Leire Lazkoz Romerok Kirolaren Balioak Positiboan Saria jaso zuen. Izan ere, saskibaloia partida bat gelditu eta arerio bati egindako faltaren berri eman zuen Leirek, arbitroak konturatu ez baziren ere. Falta horri esker, arerioak bere taldearen aurretik jarri ziren. Kirol Institutuak bere joko garbia saritu du.



NAFARROAKO KIROL INSTITUTUA



Sonia Alonso, txapela janzten. PILOTAJAUKU

Pilotajaukuko Sonia Alonso, Nafarroako txapelduna

PILOTA Emakumezkoen Banakako 2. mailako finala irabazi zion Oberenako Lasari

Larunbatean Nafarroako Kluben Arteko Emakumezkoen Banakako finalak jokatu ziren Labriten. 2. mailan Altsasuko Pilotajaukuko Sonia Alonsok Oberenako Garazi Lasa izan zuen aurkari. Alonsok hasieratik hartu zuen aurrea eta 18 eta 9 irabazi zuen, Pilotajaukuko emakumezkoen lehen txapela lortuz.



Aurrekoa dantzatu zioten Txikoni.

MENDIA Altsasuko Mendigoizaleen aitortza Alex Txikoni

Txikonek *Mendi biluzia* filma ekarri zuen bigarren Altsasura, arrakasta handiz. Aitortza jaso zuen, aurrekoa.



Uholdeak programaren erakusketa lortia kultur gunean.

Hiriaren eta herriaren arteko arte prozesuak

Uharte Arte Garaikide zentroaren Uholdeak programaren bigarren edizioaren erakusketa mustu dute Altsasuko lortia kultur gunean. Claustrofilia Kanpoko bulegoa kolektiboaren proposamena da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Urte hasieran Kanpoko bulegoa kolektiboak Uholdeak Uharte Arte Garaikideko zentroak antolatzen duen eta Caixa fundazioak laguntzen duen proiektuan komisariotza eta koordinazioa egiteko proposamena jaso zuen. "Gaia lantzen hasi ginen. Claustrofilia aukeratu genuen artistak aukeratzeko

baita erakusketa laguntzen duten ekimenak egiteko ere". Uholdeak proiektuaren helburua arte garaikidea Nafarroatik sustatzea eta zabaltzea da, ohiko lekuetatik ateratzea. Hortaz, Agoitzen egon ondoren, Altsasun erakusketa mustu zuten eta, ondoren, Elizondon, Tafallan eta Tuteran egonen da. "Ez da bakarrik erakuske-

ta bat. Artearen eta artistaren planteamenduak herrietara eramatean datza ere". Artearen planteamenduak jendarteratzea. Uholdeak. Claustrofilia erakusketa urtarrilaren 17ra arte egonen da ikusgai, Iortia kultur gunearen erakusketa gelan. Bost artisten lanak biltzen ditu, eta Txuspo Poyoren obra bat oinarri hartu dute.

Etxola

Txuspo Poyoren Zuhaitzeko etxolak oso ongi azaltzen du Kanpoko bulego kolektiboak planteatzen duena. Alde batetik, "etxola bat nahiko klaustrofilikoa delako" eta, bestetik, Poyoren lanak ongi adierazten delako arte garaikidea: "Hasieran leku batean egon behar zuen, gero beste batera eraman zuten... Horren atzean dagoena interesatzen zaigu". Erakusketan lanaren maketa bat dago ikusgai, baina urtarrilaren hasieran Altsasuko artistekin solasaldia eginen dute eta Zuhaitzeko etxolatik abiatuta arte garaikidea-

ren inguruan eztabaidatuko dute: "Zer gertatzen da espazio publikoan dagoen artearekin? Zer gertatzen da artea espero ez den leku batean dagoenean?".

Uholdeak programaren bigarren edizioan parte hartzen duten artistek, beraz, klaustrofilia-idea izan dute oinarri haien lanak sortzeko. Lehenengo edizioarekin alderatuta, kasu honetan artistek programarekiko bereziki sortutako lanak aurkeztu dituzte. "Guri prozesuak interesatzen zaizkigu, orduan, gu nahi genuen hori sustatu ere. Gero materializatu eta aretoan erakutsi behar zuten, baina guretako garrantzitsuena prozesua zen". Irantzu Antona, Ines Auber, Mirari Echavarrri, Victor Masferrer eta Iosu Zapata dira parte hartzen duten artistak, eta landa eremuan garatu dituzte haien lanak.

Erakusketa ez ezik, programaren barruan ekimenak antolatzen dituzte ere. Agoitzen Itoitz urtegia egin ondoren gertatutakoaren inguruan hausnartu izan zuten artistek, eta horretarako egoera egokitutako topaketak egin zituzten. Altsasun erakusketaren azken egunean herriko artisten solasaldia eginen dute. "Guri lekuan lan egitea gustatzen zaigu, lekua ezagutu behar dugu. Oso arraroa egiten zitzaigun Altsasura etortzea eta hemen zerbait egin behar izatea". Horregatik, artisten iritziak jaso nahi izan dituzte.

'UHOLDEAK. CLAUSTRIFILIA' ERAKUSKETA URTARRILAREN 17RA ARTE EGONEN DA

Italiako erakusketatik gertu

Artebide elkarteak Carlos Rivera Lauriaren lan bat zozketatu du, erakusketa ibiltaria aurrera eraman ahal izteko

SAKANA

Urtero bezala, Sakanako artistak biltzen dituen Artebide elkarteak Arte Azoka antolatu zuen urrian. Bederatzigarren edizioa izan zen. Bertan, Carlos Rivera Lauria artistaren eskultura multzo bat ikusgai egon zen; haren artelanetan nagusi

diren txoriak, hain zuzen. Artistak Italiako Tricase gazteluan Arte Azoka erakusketa bat moduko bat egitea proposatu zien, eta elkarteak lanaren zozketa egin du erakusketa ibiltaria egin ahal izateko. Asteartean zozketa egin zuten eta 189. zenbakidunak irabazi zuen Rive-

raren eskultura. Jose Antonio Agirrerendako izan zen.

2015. urtean Artebide elkarteak artisten lanak Tangerren egon ziren, eta "egoera hau pasatzen" denean Italiara joanen dira. "Datorren urteko udan joatea zen ideia, baina dugun egoerarekin atzeratu beharko dugu". Tricasen gaztelu bat dago, Iruñeko Ziudadelaren antzekoa, eta bertan erakusketa bat osatuko lukete. Horretarako, artistek haien lanak moldatu beharko lituzkete, "hegazkinean eraman beharko ditugulako".



Artebide elkarteak kideek asteartean zozketa egin zuten.

Granizo eta Alegre Izeta Sariketan

Igandean, abenduaren 27an, Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Baztango Udalak antolatutako sariketa jokatu da Iruritan; goizean kanporaketak eta arratsaldean finala izanen da

ALTSASU

Bederatzigarrenez, Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Baztango Udalak Izeta gogoan bere izenean sortutako sariketa antolatu dute, beharrezko neurri guztiak bermatuz eta "kulturarekiko eta bertsozalaritzarekiko apustuari eutsiz", elkartetik adierazi duten bezala. Sariketa abenduaren 27an, igandea, jokatu da Iruritan Gizarte Bilgunean. Antolatzaileek egun osoko egitaraua osatu dute: goizean bi kanporaketa izanen dira, zortzina bertsozalariekin, eta hortik sei arratsaldeko finalerako sailkatuko dira. Parte hartuko duten bertsozalarien artean Idoia Granizo eta Ekain Alegre altsasuarrak

egonen dira, goizeko bigarren kanporaketan, 12:45etik aurrera.

Mariano Izeta Sariketa 2004. urtean antolatu zuten lehenengo aldiz, eta bi urtean behin jokatzen da. 16 eta 30 urte bitarteko Nafarroako bertsozalariek parte hartzen dute. Aurten, IX. Edizioa jokatuko da eta lehen kanporaketan, 11:00etan, Patxi Castillo, Bittori Elizalde, Irati Majuelo, Aitor Irasortza, Egoitz Gorosterrazu, Ainara Ieregi, Mikel Lasarte eta Beñat Astiz bertsozalariek parte hartuko dute; gai jartzailea Maialen Belarra izanen da. Bigarren kanporaketan, 12:45ean, Sarai Robles, Amaia Lasheras, Endika Legarra, Etxahun Azkarraga,

Xabat Illarregi, Ekhiñe Zapiain, Idoia Granizo eta Ekain Alegre bertsozalariek parte hartuko dute, eta gai jartzailea Ainhoa Larretxea izanen da.

Finala 17:30ean jokatuko da eta lehen eta bigarren kanporaketako irabazleak, puntuazioaren arabera lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren gelditzen direnak sailkatuko dira. Finalen gai jartzailea Ander Aranburu izanen da.

Pandemia egoera dela eta edukiera mugatuta dago, eta, beraz, finalerako sarrerak aldeztuak dira www.bertsosarrerak.eus atarian, abenduaren 27ko 15:00ak arte.

Esaten dutena dira

Nafarroa 1512 talde arbizuarrak hamar urte bete ditu aurten. Urte berezi honetan 'Iraungo du' diskoa kaleratu du, eta urteurrenaren harira egun hauetako batean abestia kaleratuko dute ere. Baina zuzenekoak faltan botatzen dituzte

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Nafarroa 1512 talde arbizuarrak hamar urte bete ditu aurten. Urte berezi honetan *Iraungo du* diskoa kaleratu du, eta urteurrenaren harira egun hauetako batean abestia kaleratuko dute ere. Baina zuzenekoak faltan botatzen dituzte

Hamar urte, hamar urte dira. Azkar pasatzen dira, eta, aldi berean, asko dira. Hamar urtetan gauza asko gerta daitezke. Duela hamar urte Nafarroa 1512 Arbizuko taldeak bere ibilbidea hasten zuen. Iñaki Rayo bateria jolea, Julen Luis Ulon gitarra jolea, Txirri ahotsa eta Xabi Arbizu Estane baxu jolea musika egiteko elkartzen hasi ziren. Ondoren, 2014 urte inguruan Aritz gitarra jolea elkartu zitzairen. Autodidaktak izan dira; "jarrera" kontua dela aipatu dute taldekideek.

Hamargarren urteurrena, beraz, 2020 urte arraro honetan ospatzea egokitu zaio Nafarroa 1512 taldeari. "Hasieratik zerbait berezia egitea pentsatuta geneukan. Gauza gehiago geneuzkan, baina ideia nagusia abesti bat ateratzea zen". Hortaz, *Uda hartan* abestia kaleratuko dute laster; Gabonetako oporretako egunetan izanen dela aurreikusitu dute musikariek. Gainera, aurtengo udan *Iraungo du* diskoa kaleratu zuten. "Oraindik ezin izan diogu jendeari aurkeztu". Urriaren 31n Totem aretoan kontzertua eskaini behar zuten, baina azkenean hura ere bertan behera gelditu zen.

Uda hartan

Baxu bat erosi, bateria bat erosi... eta 2010. urtean jotzen ari ziren. Alerta Gorria taldeko kideen esperientzia gertu ezagutzen zuten, eta haiek ere talde bat sortzera animatu ziren. Aurretik sei kide izan ziren, baina taldea egonkortuz joan zen, eta laukotea sortu zuten. "Zerbait egiteko gogoekin hasi ginen. Uda hartan elkartu ginen eta hasieran bertsoak egiten hasi ginen". 2012. urtean lehenengo maketa kaleratu zuten: *Irabazteko jaiok*. "Abesti batzuk genituen, eta haiekin kontzertuak ematen hasi ginen. Kanta batzuk edukita jarraitu nahi bagenuen zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, eta diskoa grabatu genuen". Jendeari gustatu zitzaioela aipatu dute taldekideek.

"Gehien bat Nafarroa 1512-ren garrantzia letretan dago. Esaten duguna gara. Gure musikak ez du ezer berezirik". Bide horretatik jarraitu zuten, eta 2016an Fronte berri diskoa publikatu zuten. Taldearendako disko hori mugarrira izan zen. Kontzertuetan "indar" gehiago izateko bigarren gitarrista bat bilatu zuten, Aritz. "Hortik jo genuen eta denborarekin bigarren diskoa, errefortzua, hirugarren diskoa... Eta

NAFARROA 1512 TALDEAK 'IRAUNGO DU' DISKOA KALERATU ZUEN ABUZTUAN



BAZTERRETIK

ALTSASUKO LIBURUTEGI PUBLIKOA

Altsasuko Liburutegiaren Eguberrietarako proposamenak

Altsasuko Liburutegi Publikoak Eguberrietarako irakurketa hauek proposatzen ditu: Bernardo Atxagaren helduentzako azken liburua, biografia bat, eta haurrendako album ilustratu bat. On egin!

Kilker bat autopistan

ATXAGA, Bernardo. Pamiela, 2020 Maite Artolak zuzendutako Faktoria irratsaiorako prestatutako gogoetak jaso dira liburu honetan, 2016ko udazkenean hasi eta 2020ko udara arte mikrofonoaren aurrean adierazitakoak. Irratirako pentsatuak izan zirenez, ahozkoaren kutsua dute, baina pausoz garatutako saiakera baten gisa aurkezten dira hemen, egileak berridatzita eta osatuta.

Nojud naiz, 10 urte eta dibortziatua

ALI, Nojud. Erein, 2020 2008ko azaroaren 10ean, munduko dibortziaturik gazteenak Urteko Emakumearen saria jaso zuen, New Yorken, Glamour amerikal aldizkari femeninoak emana.

Neskatila txikia da Nojud, ez da erregina ezta printzesa ere, guraso batzuk eta neba-arreba asko dituen neskatila arrunt bat baizik. Bere adineko haur guztiek bezala, ezkutaketan jolastea gustatzen zaio eta txokolateak erotu egiten du. Kolore askotako margolanak egitea atsegin du eta uretako dortoka baten antza izatearekin egiten du amets, itsasoa ez duelako inoiz ikusi. Barre egiten duenean, bere ezkerreko masailean halako zulo txiki bat ateratzen zaio.

Baina, 2008ko otsaileko gau hotz eta ilun batean, malko

lodien atzean ezkutatu zen bere begirada polit bihurria, aitzak esan ziolarik bera baino hiru aldiz zaharragoa zen gizon batekin ezkondu behar zuela. Mundua jausi zitzaion sorbalden gainera. Presaka ezkondu eta egun batzuk geroago, azken indarrak biltzea erabaki zuen neskatilatxoak, bere zorigaitzeko patua iraultzen hasteko asmoz.

Irakuriezadazu ipuin bat!

CARBONEILL, Bénédicte & DERULLIEUX, Michaël. Tartalo, 2016 Aita bat alabari ipuin bat irakurtzen!... Otsok haiei entzuten eta... ipuinaren amaiera jakin gabe geratuko da, irrikitan. Nola lortuko du otsok ipuinaren bukaera jakitea?



Nafarroa 1512 taldeko kideak. UTZITAKOIA

hamar urte pasa dira". Ia konturatu gabe. Duela bi urte hirugarren *Garraxirik sakonena* diskoa kaleratu zuten.

Estilo propioa

Nafarroa 1512 taldea Street punk eta Oi estiloetan mugitzen da, hala ere, denborarekin taldearen estilo propioa sortu dutela esan dute. "Estiloa ez da aldatu; hobetu, bai". Sortzen dituzten melodietan garapen bat egon da. "Gure estiloa aurkitzea lortu dugu; nortasuna izatea". Ahaztu gabe taldearen filosofia letretan aurkitzen dela: "Argi daukagu gure helburua ez dela honetaz bizitzea, baizik eta borroka ideologikoa egitea. Musika tresna moduan erabiltzen dugu gure mezuak jendeari iristeko".

Abestien atzean Estane dago. "Orain arte berak egin ditu abestiak". Melodiak eta letrak proposatzen ditu eta gero taldekideen artean abestiaren estruktura egiten dute; abestiak sortzen dituzte. "Azken aldiak beste taldekideok ere eskua sartu dugu, baina orokorrean berak egin ditu abestiak". Inspirazioa egunaren arabera etortzen dela azaldu dute, "txarrena bila egotea da. Hobe itxoitea eta abestiak etorriko dira".

Garrantzitsuena letrak esaten dutena da. Estanek kultura asko duela eta asko irakurtzen duela aipatu dute taldearen mezuak azaltzeko: "Gauza asko dakizki".

Helburu nagusia "jendean kontzientzi politikoa sortzea" da: "jendea pentsaraztea, jakitea, kontzientzia piztea, pertsonaia garrantzitsuak ezagutzea...". Nafarroako eta Euskal Herriko egoeraren inguruko, feminismoaren, kapitalismoaren kontrako eta abarrek gaiak jorratzen dituzte. "Guri ez dagokigu esatea talde bat baino gehiago garen". Taldearen hastapenetan letrak "zuzenagoak" zirela aipatu dute taldekideek, "orain zeharkako modu batean sartzen dira". Ildo beretik jarraitzen dute, baina beste modu batera esaten dituzte gauzak.

Arrakasta

Duela hamar urte ez zuten "inolaz ere ez" lortuko zuten arrakasta aurreikusten. "Jendeak asko ematen du". Gehien bat, kanpoan nabaritzen dute taldearen arrakasta: "Sakanan gehiago edo gutxiago jendea ezagutzen dugu, baina Gipuzkoara edo Bizkaira joaten garenean, kontzertuak betetzen direla eta jendeak letrak dakizkiela...". Jendeak gozatzen duela ikusten dute.

HAMARGARREN URTEURRENA OSPATZEKO 'UDA HARTAN' ABESTIA SORTU DUTE

Bigarren diskoaren ondoren nabaritu zuten taldea hazten hasi zela: "Hasieran jendearengana iristea kostatu zitzaigula esan daiteke, baina bigarrenarekin salto eman genuen". Lehenengo diskotik bigarrenera "denbora pasa zen" eta ez kontzertuak ematen zituzten arren, "ez zegoen jarraikotasun handirik". Bigarren diskoa kaleratu ondoren, "motibatu" ziren ikusi zutelako aurrera egin zezaketela. "Kontzertuetan jendea animatzen zela ikusi genuen, eta horrek motibatzen zaitu".

Hamar urte hauetan "gorabeherak" egon direla aitortu dute. "Bai kolektiboki bai bakarka". Hamar urte asko dira eta bizi-tzaren arlo guztietan bezala, "bakoitzak gure gauzak izan ditugu". Duela bi urte inguru Estanek arrazoi pertsonalengatik talde uztea erabaki zuen, eta baxu jole bat bilatu behar izan zuten; Txoko. Harekin itxita zituzten kontzertuak eskaini ahal izan zituzten. "Ondoren, galdetu genion ea zein intentzio zeukan guk proiektu berriak genituelako eskuarte, eta ezin zela konprometitu esan zigun". Estane itzuli zen. Hala ere, tarte horretan kontzertuetan parte hartzen ez bazuen ere, musika sortzen jarraitu zuela gaineratu dute taldekideek, "beti egon da gauzak egiten". Kaleratu berri duten diskoaren abesti gehienak bereak direla esan dute.

Zutik eta elkarrekin

Iraungodu diskoa 2020ko abuztuan kaleratu zuten. "Oso zaila izan da. Guk urtea modu batera planteatu genuen, urtarrilean edo otsailean sartu ginen estudioan, grabatu genuen, eta udaberrian kaleratzeko ideia geneukan. Ondoren, disko berria aurkeztu eta ia urte guztiko datak itxita geneuzkan". Bat-batean dena pikutara joan zen. Egoera arraroa zen arren, kaleratzea erabaki zuten. "Data luzatzen eta luzatzen egon ginen, ea gauza hobetzen zen. Kontzertuak emateko aukera zegoen, baina ikusten genuen ez zegoela modurik". Dena eskuarte zuten zuten. "Azkenean, lana handia da".

Baina ezin izan duela diskoa aurkeztu. "Diskoa kaleratzea ongi dago, baina politena da abestiak jendearen aurrean egitea. Sortzen den hartu eman hori". Hori da gehien faltan botatzen dutena. Urriaren bukaeran kontzertua eskaini behar zuten Totem-en, baina azkenean bertan behera geratu zen ere. Egoera honek "desmotibatzen" duela aipatu dute: "Azkenean entsegua motibazioa zuzenekoetan jotzea da. Orduan,

AURTEN KONTZERTUAK EMATEA DA GEHIEN FALTAN BOTATZEN DUTENA

kostatzen da". Momentuz egoerak "antzekoa" jarraituko duela uste dute, Nafarroa 1512 taldearen kontzertuak ez direlako eserita ikusteko modukoak. "Lagun artean, zutik, saltoan, kantatzen eta oiuhukatzen egoteko kontzertuak dira", esperientzia bat da. "Ari gara zerbait planteatzen, ea zer sentsazio sortzen dizkigun. Gutxienez jendeari diskoa aurkezteko". Etorrikizun "beltza" ikusten dute, baina "buelta" emango diote. "Oso arraroa egiten zaigu jendea eserita egotea. Gehien bat guretako". Beste aukerarik ez badago probatu beharko dutela esan dute.

Taldearen historian ehundik gora kontzertu eskaini dituzte. "Hirugarren diskoarekin asko eman genituen. Uda izan ohi da sasoi nagusia, baina gaztetxeetan eta horrelako aretoetan urte osoan egiten dituzte emanaldiak.

Alerta Gorria taldearekin batera iaz Danimarkan zenbait kontzertu egiteko aukera izan zuten. "Oso polita izan zen. Arbizuko jende pila bat joan zen...". Gehiago etorriko dira. Bestetik, Gasteizko Txosnetan biziutakoa bereziki gogoan dute. "Ez genuen hainbeste jende espero, inondik inora. Iritsi ginenean eta lekua ikusi genuenean hutsune pila bat egon zirela uste genuen, eta gero bete zen. 23:20ean ez zegoen inor, eta 23:30ean dena beteta". Jendearen erantzuna orokorrean "oso ona" izan da, eta oroitzapen oso onak dituzte.

"Ez da zerbitzurik kendu; zerbitzuak gehitu dira"

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuan beste bi zerbitzu daude, Altsasuko garbigune finkoa eta Ziordiko ekarpen gunea. Primerako harrera izan dutela aipatu du zerbitzuko langile Itziar Zudaire Salegik

Eneida C. M. / Maider B. G. ALTSASU

1 Sakanan hondakin bilketa sistema ezberdinak daude herriaren arabera. Zeintzuk dira?

Zortzi herritan atez ateko zerbitzua dago, herri txikietan edo kontzejuetan sistema mistoa, eta Altsasun eta Irurtzunen edukiontzi sistemarekin jarraitzen dute. Altsasun 5. edukiontzia dago materia organikoa biltzeko eta Irurtzunen materia organikoa auzo konposten bidez kudeatzen da.

2 Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak garbigune berriak ireki ditu Altsasun eta Ziordian.

Orain arte Sakanan garbigune finko bakarra genuen, Arbizuko transferentzia gunea. Horretaz gain, garbigune mugikorra dago, herriz herri hondakin bereziak jasotzera joaten den kamioia. Urriaren 20an Altsasun garbigune finko bat ireki zen bilketa sarea handitzeko. Eta abenduaren hasieran Ziordian ekarpen gune txiki bat jarri zen martxan.

3 Emausko Trapuketariak oraindik bolumen handikoak eta bestelakoak jasotzen dituzte?

Bai. Sakanako Hondakin Zerbitzuan ez da zerbitzurik kendu,



Itziar Zudaire Salegi, Arbizuko hondakindegiko transferentzia gunean. UTZITAKOIA

zerbitzuak gehitu dira. Emausko Trapuketarien zerbitzuak martxan jarraitzen du, garbigune mugikorrek jarraitzen du eta Arbizuko guneak ere. Altsasuko garbigune finkoa eta Ziordiko ekarpen gunea gehitu egin dira.

4 Non dago Altsasuko garbigune finkoa?

Pilotajauku inguruan dago, hileritik eskuineko bidea hartuta aurrera joanda. Goizeko 9:00etatik 14:30etara dago zabalik, astelehenetik ostiralera. Bertan

etxetresna elektriko handiak, txikiak, tamaina handikoak, bateriak, pilak, margoak... denetarik jasotzen ditugu.

5 Ziordiko ekarpen gunea non dago?

Elizaren atzealdean dago. Bertara gauzak eramateko Ziordiko udaletxearekin jarri behar da harremanetan, asteartetan eta ostegunetan, goizeko 10:00etatik 12:00etara, giltza uzteko. Ziordikoan besteetan baina gauza gutxiago jasotzen dira. Inausketak edo obra txikiko hondakinak onartzen dira, baina soilik kantitate txiki bat etxe bakoitzeko. Tresna elektrikoak, tonerrak, bonbilla fluoreszenteak... hala koak. Altsasura gauza gehiago eraman daitezke, handiagoa denez kudeaketa ere ezberdina da.

6 Zerbitzu berriak zabaldu dituzuenetik denbora gutxi pasa da, baina zer nolako balorazioa egiten duzue?

Altsasukoak denbora luzeagoa darama zabalik eta balorazioa oso ona izan da. Jendeak dio bazela garaia herrian halako zerbitzu bat izateko. Mugimendua dago, jendeak gauzak eramaten ditu eta erantzuna positiboa da.

7 Furgoneta Sakanan herriz herri dabil. Jendea ohitu da bertara gauzak eramatera?

Bai, jendeak erabiltzen du, eza gutzen du eta mugimendua duen zerbitzua da; erabilera nahiko ona da. Ildo honetan, aipatu nahiko nuke abenduaren 28tik ilbeltzaren 3ra arte ez dela garbigune mugikorraren zerbitzua egongo. Data horietan garbigune finkoak martxan egongo dira, baina mugikorra ez.

8 Aurtengo Eguberriak bereziak izango dira. Irudipena da hondakin gutxiago sortuko dugula, baina ikusteko dago. Normalean garai hauetan zabor bilketa handiagoa izaten da, ezta?

Eguberrietan hondakin gehiago sortzen ditugu, eta, ondorioz, hondakin gehiago biltzen dira Sakanako Hondakin Zerbitzuan. Aurtengo egoera berezia da, ikusiko dugu zer gertatzen den.

9 Sakanako Mankomunitateak Eguberrietan orain arteko hondakin zerbitzuak mantenduko ditu? Berez bilketa berdina izango da, bi egunetan izan ezik. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren leian ez da zabor bilketa zerbitzurik egongo, baina gainontzeko egunetan bai.

Berez bilketa berdina izango da, bi egunetan izan ezik. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren leian ez da zabor bilketa zerbitzurik egongo, baina gainontzeko egunetan bai.

10 Altsasuko garbigunean eta Ziordikoan ordutegi berezirik izanen da Eguberrietan?

Altsasuko garbiguneak normal jarraituko du, abenduaren 25a, ilbeltzaren leian eta ilbeltzaren 6an izan ezik. Egun horietan garbigunea itxita egongo da, baina gainontzeko egunetan zabalik. Eta Ziordiko ekarpen gunea udaletxearen ordutegiaren arabera izango da.

11 Aholkuren bat emango zenieke sakandarrei? Ahalik eta zabor gutxien sortzea, eta hondakinak ongi kudeatzea, esaterako. Idealena hori litzateke, ahalik eta zabor gutxiena sortzea, baina badakigu nolakoa den hau. Gogoratu dezatela abenduaren 25ean eta ilbeltzaren leian ez dagoela zerbitzurik eta egun horietan ez dezatela zaborrik atera, eta, jakina, guztiak Eguberri onak pasa ditzatela.

URTE BERRI IRUDI BERRI

2021

DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 · 948 564 275 · info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu